



Besta egitera autobusean

Baztango herrietako beste-tara joateko autobusak jartzea eskatu dio Baztandarren Biltzarrak Junta Generalari. Herrietako alkateek ongi hartu dute idea, azken aldian gero eta jende gutiago mugitzen baita herrietara. Asier Maritorea Baztandarren Biltzarreko kideak erran digunez, «komodidadearengatik eta alkoholemia kontrolak gogortzen hasi direnetik jendeak Elizondon gelditzea nahiago du» eta «bestetara gateko kultura hori» galtzen ari ote den

ere kezkatuak daude. Halere, Baztandarren Biltzarrak Junta Generalean presentatu duen idea ez da momentuz aitzinera ateri, udal ordezkari batzuen diotenez horrekin «mozkorkeria» sustatuko baitzen batez ere. Dena den, gaeko autobusen kontua ez da berria Baztanen. Negu honetan, igande goizaldeko 4,30etan herri guzietatik itzulixka egiten zuen autobusa jarri bai-

Baztango herrietako bestak indarberritzeko, joan-etorrian ibiliko den autobusa jartzea eskatu du Baztandarren Biltzarrak

tzuten Elizondoko ostatuen artean. *Baztan*sako Tomas Garmendiak aipatu digunez jende gutik erabili zuen autobus hori, baina halere, esperientzia polita izan omen da. Bidai motzak direnez, «jendea ongi portatu» dela gaineratu du. **ESP 3**

4-5 Erreportaia: Saharako umeak hemengo etxeetan

Uda honetan Saharatik Leitza, Areso, Lekunberri eta Zubieta-
ra etorriko dira 7 eta 16 urte bi-
tarteke 24 neska-mutiko. Uda
hemengo etxeetan pasatu ondo-
tik, irailean itzuliko dira.

25 Kirolak Akitu da Jose Ezkurra pilota txapelketa

10. edizioa bete du dagoeneko
pilota txapelketa honek.



Sarrera BERATik da
Alkatagako industrialdean
Sastrin karrirka, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnou. 948 630 537
Fax. 948 631 443



4.000 m²ko

erakusketan

mobleak ikusteko

Larunbat arratsaldetan irekia



DATUAK.....

❖ Asier Maritorea 23 urteko aniztarra, Baztandarren Biltzarra elkarteko prentsa arduraduna da.

❖ Baztandarren Biltzarra egunaren antolaketan buru-belarri ari dira orain. «Hamar-hamabi lagun biltzen gara batzarrean» dio Maritorenak.

❖ Negu honetan, igande goizaldetan Elizondotik herrietara gaten zen autobusa paratu dute ostatuek. Orain, herrietako bestetara gantorrian ibiliko den autobusa jartzea eskatu du Baztandarren Biltzarrak.

✍️ **Asier MARITORENA** *Baztandarren Biltzarra*

“Herrietako bestetara gateko kultura berreskuratu nahi dugu”

**HERRIETAKO BESTETAN GIRO GUTI DAGOELA AIPATU DUZUE. EGOERA MOLDATZEKO AUTOBUSA PARATZEA ESKATU DIOZUE JUNTA GENE-
RALARI...**

Oraí dela bortz-sei urte arte herrietako bestetan jende aunitz biltzen zen, ortziraletik igandera batez ere. Oraí berriz, larunbatetan ere ez da inor gaten. Berroetako bestetan ikusi da aurten, ez zen herritik kanpoko inor ere. Elizondoko ostatuak, berriz, goizaldera arte bete-beteak egoten dira. Jendeak komodidadearengatik, eta duela bi urtetik alkoholemia kontrolak ere gogortzen hasi zirelako, jendeak Elizondon gelditzea nahiago du. Herrietako bestetara gateko kultura hori galtzen ari da eta autobusa jartzearekin hori berreskuratu nahi dugu.

ZER HARRERA IZAN DU ZUEN PROPOSAMENAK JUNTAN?

Herrietako alkate guziek ongi hartu dute eta Erratzu eta Almandozko bestetan autobusa izanen dela erraten ahal dugu. Prentsan, aldiz, alkate batzuk aurka zeudela eta helburu bakarra mozkorkeria indartzea zela agertu da eta hori ez da horrela. Mozkortu nahi duenak moz-



Helburua herrietako bestak biziberritzea da. Autobusa lehen pausua izanen da.

kortuko da autobusean, kotxean edo oinez gan. Helburua herrietako bestei bizia ematea da. **ETA AUTOBUSAK HORI LORTUKO LUKE EDO MUGITZEKO ALFERKERIA PIXKO BAT ERE BADA?**

Ez dakigu nolako harrera izanen duen, baina indar pittet hartzen badu, arrakasta izaten ahal du autobusak. Dena moda kontua da. Orain

modan dago Elizondon egotea eta hemendik urte batzuetara igual berriz ere bestetara gatea izanen da. Hori lortzeko autobusa lehen pausua izatea nahi ginuke. **NORK ORDAINDUKO DU AUTOBUSA?**

Gure asmoa hiru zatitan banatzea zen: herriak, Baztandarren Biltzarrak eta Udaletxeak ordaintzea. Baztango Balleko Etxearena airean gelditu da. Oraí Erratzu eta Almandozko autobusak Baztandarren Biltzarrak hartuko du bere gain, baina pentsatzen dugu herriek ere lagunduko dutela.

AUTOBUSA ALDE BATERA UTZITA, ORAI BAZTANDARREN BILTZARRA EGUNA ANTOLATZEN IBILIKO ZARETE. BERRIKUNTZARIK IZANEN DA EGITARAUAN?

Aurten tonbolaren orde, herri bakoitzak zere bat zozketatuko du, herri bakoitzeko denda eta komertzioek emandako gauzekin. Baztandarren Biltzarrak berriz, 100.000 pezeta eta bertako produktuen zarea jarriko du, beraz, hamasei zere izanen dira. Hori bai, nahiko lan bado gu egunaren antolaketan eta autobusik ez da izanen.

► *“Gure helburua mozkorkeria indartzea dela agertu da prentsan, baina hori ez da horrela. Mozkortu nahi duenak mozkortuko da autobusean, kotxean edo oinez gan.”*

TESTUA:

AITOR AROTZENA

ARGAZKIA:

KARMELE TOLOSA

SAHARAKO UMEAK

Basamortu handienetik gure mendi berdeetara

Saharako Polisario Frontearen egitasmoan oinarritu eta Nafarroako Sahararen Lagunen Elkarteak antolatutako bidaian, basamortu horretan bizi diren zazpi eta hamasei urte arteko 24 neska-mutiko etorriko dira uztaila eta abuztua gure inguruan pasatzera. Gehienak Leitzan izanen dira, hiru Areson, pare bat Zubietan eta beste bat Lekunberrin. Modu honetan, Saharako uda itogarritik (termometroak 50 gradutara igotzen dira egunez eta 40tik goiti irauten dute gauzez) eta ur eta janaria eskasitik alde eginen dute haur hauek. Hemen, elikadura eta osasun arloko segimendua eginen zaie, irailan bere herrialdera indarberrituak itzul daitezten.

TESTUA: AITOR AROTZENA
ARGAZKIAK: LURDES BALANTZATEGI

Sahara da munduko basamortu edo deserturik handiena eta hondarrez betetako paisai zelai horretako mendebaldean bizi da Saharako herria. Herrialde libre izatetik Espainiako kolonia izatera pasatu zen. Beraiekin kontatu gabe, Espainiak eta Marokok hitzarmena sinatu zuten eta Sahara Marokoren esku gelditu zen. «Orain, batzuk askatutako lurraldean bizi dira, Saharan. Desertuaren erdian, Marokokegindako horma haundi bat dago, ia-ia Sahara osoa gurutzatzen duena. Alde batetik Sahara askea dago eta bestetik Maroko.

Dena den, saharauien hiritik bi errefuxiatuak bizi dira, Algerian batez ere. Guzira milioi bat eskas biztanle dira, gutti batzuk lurralde askean eta beste batzuk Marokon bizi direnak» dio Lurdes Balantzategik, Aste Santuan bertan egon eta udan bi haur ekarriko dituen leitzarrak. Saharakoen nahia beraien etorkizuna erabakitzeko erreferenduma egitea da. Marokok, ordea, autonomia tiki bat besterik ez dio eman nahi. ONUko bitartekaritzak hirugarren bide bat proposatzen du: lehenik autonomia izatea Marokoren barnean eta pixkanaka herri libre bihurtzea, horretarako data bat jarritz. Ekainaren 26 eta 27an bilzteeoak dira hiru aldeak Lon-

Hezkuntzan oso aurreratuak daude Saharan. Denek dute ikasteko aukera eta Bigarren hezkuntzaren ondotik, Aljeria, Libia eta Kubara joan ohi dira Unibertsitatean ikastera.



«Ez dute bainatzeko ohiturarik, egunean bost litro ur baitute edateko eta garbitzeko»

Zure ustez nola moldatuko dira hondarrean ohitutako neska-mutiko horiek gure inguru menditsu honetan?

Esaten dute haseran inpaktu handia izaten dutela, oso gogorra dela. Kontuan hartu behar da han hondarra besterik ez dutela ikusten eta *jaima* (denda) bakarrik dutela bizitzeko, ez dute deus gehiago. Kanpamenduetan bizi dira eta han ez dago argi-ındarririk, erosteko dendarik. Ez dute bainatzeko ohiturarik, han egunean bost litro ur baitute edateko eta garbitzeko. Orduan, garbitzen erakutsi behar zaie. Eskailerak igotzeko eta jeisteko ere izugarritzko arazoak dituzte haseran, han dena zelaia delako.

Zuk zeonek, bi haur ekarriko dituzu. Zergatik?

Chiapasen, Saharan eta inguru horietan egoten zarenean, nolabait laguntzeko kezka sortzen zaizu. Saharako umeak ekartzeko kanpaina zegoela jakin nuenean pausua eman nuen.

Hemengo jendearekin nolako harremana izanen dutela uste duzu?

Haseran lotsati xamarrek dira, beraien ingurutik ateratzen dituzten haur guziak bezala. Behin konfidantza hartuz gero oso zabalak eta atseginak dira, oso maitekorrak.



dresen. Saharako herriaren eskubideak aldarrikatzen dituen Polisario Fronteak erreferenduma egiteko eskubidea onartzen ez bada armak hartuko dituela adierazi du.

Kultura eta osasun arloan dexente aurreratutako herria da, nahiz eta kanpamenduetan bizi. «*Hasani hizkuntza dute, baina eskolan gazte-ler pixko bat ere ikasten dute. Hezkuntzan oso aurreratuak daude, denek dute ikasteko aukera. Gero, Bigarren Hezkuntza bukatu ondotik ikasketekin segitu nahi badute kanpora ateratzen dira ikastera, Aljeria, Libia eta Kubara. Jende askok dauka karrera*».

Testuinguru horretatik etorriko dira Leitzza, Zubieta, Areso eta Lekunberrin uztaila eta abuztua pasatuko duten hogeita lau neska-mutikoak. Ez dira, noski, Europa aldera etorriko diren haur bakarrak, guzira hamar mila hedatuko baitira Espainia, Frantzia, Italia eta bertze herritaldeetan barna. Joan den urtean ere izan zen haurrak ekartzeko asmoa, baina azkenean, hegazkinekin sortutako arazo batzuk zirela eta ez zen posible izan. «*Han dirulaguntzei esker bizi dira eta uda oso gogorra izaten dute. Uztaila eta abuztuan 50 gradutara igotzen da temperatura egunez eta gauez ere 40 ingurutan ibiltzen da. Ur eta janari eskasi handia*



Jaima edo dendetan egiten dute bizimodua Saharako biztanleek, argindarririk eta urarik gabe. Dirulaguntzei esker bizi da Saharako herria.

izaten dute. Orain ez hainbeste, baina duela gutxi arte beherakoa arazo handia izaten zen eta haur asko hiltzen zen deshidratatuta. Hemen janaria eta osasuna kontrolatzen zaie. Gero indarberrituak bueltatzen dira etxera» dio Balantzategik.

Hemengo familiak, haurrak noiz etorri zain

Bien bitartean, hemen haurrak hartuko dituzten familiak egunaren zain daude, urduri,

joan den urtean ez baitziren azkenean etorri. Zubietako Fausti Juanikorenak hamalau urteko bi neska hartuko ditu, Falimelu Mohamed eta Fatu Lehib. «*Etxean adin beretsuko neska dugu eta ongi moldatuko direla espero dugu. Hemengo mendiekin aluzinatua geldituko dira. Kattalin alabak betidanik nahi izan du haurren bat adoptatzea eta hau horrelako zerbait da. Berriz itzultzen direnean penatuak geldituko gara denak,*

baina Eguberrietan Saharara joateko asmoa dugu».

Aresoko Itziar Perurenak haur bat ekarriko du, hamar edo hamaika urtekoa. «*Haseran pazientzia izan beharko dugula aipatu digute: iturria edo argia ezezagunak dira beraientzat eta lurtean etzanda egotea asko gustatzen omen zaie. Aresora beste bi etorriko dira eta herrikoekin ere ongi moldatuko direla pentsatzen dut... Umeak ume dira leku guzietan*». ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Frederick Berruet,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txopereña,

Pello Apezetxea,

Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako

Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria160 Libera

Europa4.000 Pta.

Amerika16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Errepidean ziklistak errespetatzen al dira?

Multzoka joaten garenean ibilgailuak askoz begirune gehiagorekin ibiltzen dira



Garikoitz Gartzia
Bera. Zikloturista.

Argi dago, leku bakoitza ezberdina izanik, zikloturistek errepidean

duten arriskua ibiltzen diren lekuaren arabera ezberdina dela. Niri, Berakoa izanik N-121ean ibiltzea beharrezkoa izaten zait eta denek dakigun bezala, errepide honek gehiago dauka hirugarren mailako errepide baten itxura 'nazioan' batena baino. Horregatik, zikloturisten segurtasuna asko handituko zuen bazterbide egokirik jartzen ez diguten bitartean, gidari guztiei hauxe esango nieke (nire burua barne): zikloturistak errepidean gainontzeko ibilgailuekiko duen ahuleziaz ohartzea, askotan aurreratzeak bakarrik sortzen duen haize-zurrunbiloak asko desorekatzen baitu bizikleta lurrean eta zororen batek zapaltzeko arriskua asko handitzen da. Beste aldetik, lagun artean, gai honi buruz solastu garenean, zikloturistak 'potro-handi' batzuk garelara bota didate aurpegira, askotan lerroan joan beharrean pelotoi txikitian joaten garelako. Jarrera honen zergatia oso ximplea da: multzokajoa ibilgailuak zurekiko daukaten jarrera aldatu egiten da askoz ere begirune gehiagorekin ibiltzen baitira. Zuek zer egingo zenukete?

Aunitz aldiz koleratzen gara denak multzoan gaten direlako



Txomin IRIBARREN
Urdazubi. Kamioilaria.

Behobiatik Donezteberako karretera estua da eta dagoen trafikoarekin nahiko arriskutsua da txirrindularientzat. Endarlatsako tartea da makurrena: pentsazu, bideak izanen du gehienez 7 metro. Kamioi batek 2,5 ditu, eta bertze batekin guruzten bada 5 metro dira dagoeneko. Beraz, leku gutxi gelditzen da hor txirrindularientzat.

Kamioiekin nahiko konplikatu da distantziak errespetatzen ez badituzu. Sobera hurbil pasatzen bazara, beldurrarekin edo haizearekin botatzen ahal duzu errex. Txirrindulari bat aurreratzeke distantzia luzea behar da, kamioiak mantso arrankatzen duelako.

Nik bi gauza ikusten ditut: txirrindulariak banaka joaten direlarik nahiko errespetatzen dute, baina taldea indarra hartzen dute. Aunitz aldiz koleratzen gara denak multzoan gaten direlako, beren deretxoan gaindi aunitzan.

Edozein modutan, nik ez dut soluzio garbirik ikusten, ez badute lehengo trenbidea txirrindulenzat moldatzen... baina beti ere bigarren mailako karreteratan N-121ean baino aisago ibiltzen ahal dira.

Nik sekulan ez dut istripurik izandu ziklistekin, beti esperatu izandu diet



Juanito SAN MIGUEL
Oitz. Autobus gidari ohia.

Ni orain erretiratu naiz, baina txofer aritzen nintzen denboran beti ziklistekin ezin eskapatuz egoten nintzen. Beti jotzeko beldurrarekin, ezin aintzinduz ere aunitzan, zeren igual zure aldeara egiten baitzuten golpea. Hemengo hauek bide estuak dira, gainera urtean behin bertzerik ez dituzte garbitzen, eta bazterretan sasiak handitzen dira...

Nik, halere, ez dut sekulan istripurik izan ziklistekin, beti esperatu izandu diet. Kontu handia izandu dut beti, autobusarekin ezin baita jostetan ibili. Oraingo katxarroekin aisago aitzintzen da, baina halere ustekabean etortzen ahal dira kotxeak eta karretera hauetan ez daiteke bi baino gehiago gurutzatu. Gainera nik uste ziklistek ere ez dutela errespetatzen, aunitzan binaka edo hirunaka joaten dira solasean eta zuk egin behar duzu dena, gainera ez pasatzeagatik.

Malerrekako karretera hauetara Iparraldetik etortzen dira aunitz, gehienetan multzo handitan. Horrelako taldeak harrapatu ezker ezin duzu aitzindu eta kolertzen zara, baina zer egin behar duzu... aguantatu. Pazientzia handia behar da karreteran.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Aresoko Eskola Publikoa

Aresoko Udalak eskola-komunitatearen aurka eta bere hezkuntza-programaren aurka egiten dituen ekintzak eta mehatxuak ez dira bukatzen. 2000ko ekainaren 1ean, ostegunean, GURASO ELKARTEAK bilera bat egin behar zuen eskolan. Horretarako baimena alde aurretik eskatu zuen eta ikastetxeko zuzendaritzak bere oniritzia eman zion. Bilera horretan, ikasturte honetarako elkarte horrek antolatutako behar zituen jarduerak eta ekintzak prestatu behar ziren. Bada, bileraren hasieran Aresoko Alkatea bertan agertu zen guardia zibilaren patrulla batekin, edozein ekintza mota galeratzeko eta bertan bildutakoak handik bidaltzeko asmoarekin. Guardia zibilak gurasoen lana galeratzeko konpetentziarik ez zuenez, bilera normaltasun osoz burutu ahal izan zuten.

2000ko ekainaren 4an, igandean, eta eskola itxita zegoela, Alkatea berriz ere guardia zibilarekin eskolan sartu zen. Oraingoan, alkatearekin batera, Juanita Arribillaga eta Milagros Oreja zinegotziak zeuden.

Udalaren jokabide honen ondorioz edozer gauza espero liteke, ederki asko baitakigu bere asmoa "GUZTIA-REKIN BUKATZEA" dela, berak esan duen bezalaxe. Ikusi ahal izan dugunez, edozein bitarteko erabiltzeko prest daude.

Guraso Elkarteak eta Aresoko herritar gehienok ez dugu onartuko eskola-komunitateak azkeneko 10 urteotan lortu dituen aurrerapen sozial eta kulturalen atzera egiterik.

ARESOKO ESKOLAKO GURASO
ELKARTEA

**Lesakar guztiei:**

Jakinen duzuen bezala, 2 hilabetez, asteburuero 48 ordutako baraualdia egiteko asmoa genuen. Lesakako Udaletxeko pleno aretoan, Presoen oinarriko eskubiak, era baketsu eta partehartzaile batean, aldarrikatzeko asmoa genuen, bertzerik ez.

Ailegatu zen 4. txanda sartzeko garaia, aintzineko 3 asteburuak nahiko arrakasta izan ondoren, eta Udaletxera sartzeari debekatu ziguten. Debekuaren motiboa? 3. txandan megafonia jarri zela eta, kejak izan zirela. Badirudi jendeak ez duela aditu nahi ere egin zein den euren herriko seme alabak Espainiako kartzelatan jasaten duten egoera; Iruñan edo Martutenen egon beharko luketela; Zigorra bete arren kartzelan jarraitzen dutela hainbat euskaldunek...

Hurrengo 3 asteetan Udaltxean sartzeko baimen hori berriz ere eskuratzeko ahal legin berezia egin genuen, Tantirumairu dantza taldea, Beti-Gazteko jokariak eta Gazte asanblada bezalako taldeak baraualdian sartzeko prest baitzeuden (hemendik gure esker xumea parte hartuko asmoa zute-nei). Alkateak jarritako baldintzak, beteko genituela agindu nahi genuen (3.asteen ez bezala), baina zein izan zen erantzuna?

Gure herriko agintari gorenak, presioak omen ditu; erdian omen dago; omen jartzan dugu, gure iritziz alkatea piramidearen goi puntan baitago, berak erabakitze ahalmenak ditu erresoluzio bidez. PNV presoen eskubideen alde agertu da, baita EA koalizioa ere. Gure jarrera ere argi azaltzen dugu, baina zein da bertze aldetik presionatzen duen hori?? Zeinek presionatzen du bada, PNV, EA eta EH al-

derdiak dauden udalean? Eman dezala aurpegia amu eskuindar horrek!!

Bertze aitzakiari dagokionez, eta logika pixka bat aplikatuz, herria pintatua agertu izanak ez du harremanik baraualdiarekin; agian mota hontako aldarrikapenekin hartzen den jarrera zentsuratzailak eragiten ditu, horrelako adierazpenak.

Alkateak, nahiz haseran itxuraz, eskuzabaltasunez jokatuz, zailtasunak bertzerik ez dizkigu paratu, batez ere berekin harremanetan jartzeko. Zita egin eta ez agertzearena ez da bikoteetan soi-

lik pasatzen. Bertzerik gabe, baraualdia bertan behera uzten dugu; plazan edo arkupeetan ere egiten ahal genuen, baina presiotik Guardia Zibilaren errepresiora tarte tiki egia dago.

Ez da harrizkoa presoak dauden tokian egotea, "abertzalea" den udal batean hainbertze, arazo eta eragozpen aurkitzen baditugu.

Eta zu, ze egiteko prest zaudete Presoen eskubideen alde??

LESAKAKO PRESOEN ALDEKO
TALDEA

**Nabarrismo naparrizida**

Nabarrismoa:

Oraindik orain badira gurean «divide y vencerás» leloarekin ari direnak. Ez bide dute aski Euskal Herria hiru eremu administratiboetan banatzearekin, espainol eta frantses nazionalismoak aserakaitzak baitira. Behin Nafarroa bitan banatuta, Foru Komunitatea (Nafarroa Garaia) ere banatu nahi dute. Naparron eskubide zibilak, hizkuntzarenak bereziki, bizilekuaren arabera aintzat hartzen diren honetan, argi erran behar dugu: Euskara napar guztion ondarea da, nafar guztiok daukagu euskaraz bizitzeko eskubidea eta administrazioak eskubide hori bermatu behar du. Lanpostu deialdira aurkezten den pertsonaren lan eskubideak, eta herritarrok administrazioarekin euskaraz aritzeko dugun eskubidea, zaku berean ezin dira sartu. Ikuspuntu maltzurra da hori. Administrazioak biak bermatu behar ditu, horretarako ditu ahalmena eta bitartekoak. Baina arrazoi ustelak maltzurki erabiltzen dituenak ez du borondaterik erakusten, eta edozein lanerako borondatea izaten da

funtsezkoa. Maizegi nabarrismoak bertze alderdi politikoei, ezker abertzaleari bereziki, euskara ideologi zehatza zabaltzeko erabiltzea leporatu die. Orain berriz, gizaratean ez dagoen zatiketa antzesten ari dira. Non dago Nafarroan euskaldunen eta ez euskaldunen arteko gatazka? Non dago euskaldunen eta ez euskaldunen arteko muga? Muga bakarra nabarrista-espainolisten buruetan dago. Nola murgil zaitezke zuek parlamentari naparrizida horiek, euskararen presentzia administrazio eta unibertsitatean handitu ala murriztu eztabaida faltsuan, demoniozko eskualde euskaldunetan bide seinaleak gaztelera hutsean jarri dituzuenen? (berriki zabaldutako Larrakaizko tune-lan konpazione batera). Jakina da Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta eskualdeko udal ere lehendik erdaraz zeudenak elebitan jartzeko behin eta berriz eskatu dizuegu, baina zuek zaharrak euskaratu beharrean berriak erdaratu hutsean jarri dituzue. Badakigu maltzurki ari zarete: Zer zoinifikazio eta zer demontre, ofizialtasuna bide seinaletan ere errespetatzen ez baduzue. Argi eta gargi erakutsi duzue, euskararekiko konpromezu bakarra duzuela: Euskara, napar hizkuntza, desagertaraztea, museo eta liburutejiko harribitxia bihurtzea. Jakin dezaten beraz zuen botoemaileek, UPN eta PSNren boto emaileek, euren botoekin euskara eta Nafarroa hiltzen ari zarete.

OSKAR GOÑI PETRIRENA
BERAKO EUSKARA ZINEGOTZIA

**OHARRA:**

*Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*



Diario de Navarra 00ko ekainak 16

«Garraio enpresa bat ezin da erregaiaren prezioaren gaineko subentzioan oinarritu. Denbora batera dirulaguntza hori kendu egingen lukete eta, orduan, tarifa eguneratzeak izugarrizko kolpea suposatuko luke».

Rafael IRIGOIEN
Lesaka (Nafarroako Garraio Enpresarien Elkarteko lehend.)
Diario de Navarra 00-06-16

«Alkatesak pareta altxatu zuen egun batetik bestera. Horma honek eskolako patio estalia desagartarazten du eta gimnasiora ailegatzeko pasabidea ito egiten du, zentzurik ez duen eremu hori sortuz».

Joxepi MARZOL
Aresoko Guraso Elkarte
Diario de Navarra
00-06-09

◆ **Zer aldatu da duela ia 30 urteko Kalaxka peña sortu zenuten kideetatik gaur egunekoetara?**

◆ Denak zahartu garela, gehienak espostu eta haurrekin gaudela, bere ondorio guziekin.

◆ **Kalaxka eta Irrintzi peñen arteko harremana nolakoa da?**

◆ Ona da, baina beti izan dugu pike pixko bat. Bestarako fundameto eskaxa dute.

◆ **Ezpatadantzarien kapitain zineneko oroitzapenik onena?**

◆ Sanfermin bezperako urduritasun eta tentsio hori, dantzan hastean desagertzen zena.

◆ **Eta txarrena?**

◆ Utzi nuen urtean hagitz gaizki pasatu nuen, negar eta guzi egin nuen.

◆ **Zer falta zaie Sanferminei?**

◆ Egunez zozo xamarrak gelditzen dira. Dianak edo haurrendako zezen ttikiren bat plazan paratuko nuke.

◆ **Aita izateak bestarako gogoa murrizten dizu?**

◆ Aita izateak ez dakit, baina adinak bai. Orain gaupasa bat egin eta hiru egun pasatzen ditut burua ezin altxatuz.

◆ **Aurten peñen eguna larunbatarekin izanen da...**

◆ Herrikoentzat gaizki. Egun hori hobekiago pasatzen dugu guk bakarrik.

◆ **Bestondorako errezetarik onena?**

◆ Lo aunitz egin, ongi jan eta berriz ere juergara.

◆ **Beti Gazteko jokalaria eta entrenatzailea ere izan zara. Lehengo ala oraingo jokalaria?**

◆ Oraingoek fundameto gehiago dute eta hobeki prestatuak daude, baina guk ere aunitz disfrutatu dugu balonean aritzen.

◆ **Noiz ikusiko dugu berriz Preferenten Beti Gazte?**

◆ Bizpahiru urte pasatu beharko dira (Ea Joxe Mari haserretzen den).

◆ **Lesakari zer falta zaio?**

◆ Gazteentzat etxebizitzak eta presoak berriz ere herrian ikustea eta egoera politikoa moldatzea. Agur bat Iñakiri Sanferminetan urteak betetzen ditu eta.



Kotte IANTZI

Kalaxka peñako kidea eta ezpatadantzari ohia
LESAKA

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

E E K L E
st tu

Tfnoa: 948630259

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zagarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA DESINFECCIONES

© 948630155
BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA

Alberto RETEGI

abokatua

Altzate 17
BERA
© 948 630 763

Mirari

Pre-mama moda

Barrendik eta kanpotik janzten zaitugu

Serapio Mugika, 14 • IRUN • © 943 615886

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

bortzIRUDI

BERA

DESIGNU GRAFIKOA
INBIJENTA LANAK
SERBIZIOAK
FOTOKOPIAK
ENKUADETHAZDAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA • FAMAIA
SKANERRIA

PAPERTZERIA
BIBLIOTHEKA
ARGAZKI MUNTALAK

ERTEGARA 26 BEHOA
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Nafarroako Hizkuntz Politikarako agintariak dimisioa aurkeztera behartu dituzte

Nafarroako Gobernuak Unibertsitateak eta hizkuntz politika batu ditu zuzendaritza berean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiko goi agintariak beraien karguak utzi egin dituzte, «lanerako baldintza egokiak betezen ez direla» adieraziz. Zehazki, Fernando Perez de Viñaspre zuzendari nagusia, Juan Ramon Elortz Euskararen Normaltasunerako eta Sustapenerako Zerbitzuko zuzendaria eta Jose Manuel Urrotz Programazio eta Ikerketa Zerbitzuko zuzendaria dira karguak utzi dituztenak. Beraien ustez, gaur egun UPN eta PSN alderdiek euskarari egiten dioten erasoek «ezinezkoa egiten dute euskararen aldeko lanean segitzea».

Azken aldian, UPN eta PSNko agintariak administrazioan euskararen erabilera murrizteko pausuak ematen ari dira, bertezake bertez, euskarak balorazio guttiago izanen du lanpostuetarako lehiaketetan. Hori dela eta, Hizkuntz Politikako ardura-



Fernando Perez de Viñaspre duela lau urte Beran euskararen egoerari buruz egindako erakusketa baten zabaltze ekitaldian. Artxibokoa

dunek diotenez, «gure lana baliorik gabe gelditzen da, Nafarroako Gobernuak berak onartutako hizkuntz politikan onartutako helburuak ere kanpoan uzten badira».

Jaso dituzten kritikei buruz, zera diote hiru arduradunek: «Zuzendaritza honen betebeharra eta bere izateko arrazoia euskararen sustapena da, noski».

Beraien ustez, hizkuntz gutxituen normalkuntza, eta tartean euskararena «politika manio-bren eta bertzelako interesetatik kanpo» gelditu beharko lirateke.

LANERAKO HAGITZ BALDINTZA KAXKARRAK ZITUZTEN

Hiru kargu hauen dimisioak zer erranik sortu du Nafarroako euskaltzaleen artean. Ge-

hienez, normala da dimisioa, «lanerako zituzen baldintzak hargiz kaxkarrak» baitziren. Oinarriak erakundeak aipatu duenez, «dimisioak krisi politikoak sortzen du eta ikusi behar orain nola betetzen dituzten kargu horiek. Hizkuntz Politika baino Hizkuntzaren kontrako Politika bihur daitete».

Izan ere, Hizkuntz

Politikako goi-karguen dimisioa, joan den urtean Euskararen kontseilukideek aurkeztutako dimisioei gehitu behar zaizkie. Hauek ere, euskara sustatzeko baliabide nahikorik ez zutela eta Nafarroako Gobernuak euskararen aldeko jarrerarik ez zuela salatu zuten.

UNIBERTSITATE ETA HIZKUNTZ POLITIKAKO ZUZENDARITZA BERRIA SORTU DU GOBERNUAK

Baina euskaltzaleek ez ezik, Nafarroako Gobernuak ere eman du bertez pausu bat, Hezkuntza eta Kultura Sailaren barnean Unibertsitate eta Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusia sortuz. UPNk Pedro Pegenaute sartu du zuzendari bezala, alderdi honetara lotua dagoen pertsona, hain zuzen. Izendapen honek ere kritika zorrotzak jasotzen ditu euskaltzale eta alderdi abertzaleen aldetik. «Azeria oilategian sartzea bezala» dela adierazi zuen, Jesus Mari Satrustegi euskaltzainak.

© 948631076 • BERA

ttipi-ttapa internet

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com

Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

ERROTAZAR

Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA

ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

Gasteizko 30 artista gazteren pintura eta eskulturak ikusgai

Ortziral honetan irekiko da Itur-artea kolektiboaren erakusketa

ASIER GOGORTZA

Denbora laburrez egonen da erakusketa hau Berako Kultur Etxean, uztailaren 9ra-ko erretiratuko dute eta. Dena den, bitarte horretan Arabatik heldu zaizkigun artelanak ikustera joateak mereziko du, hainbat teknika eta estilo diferente egonen direlako. Norberaren gustuko zerbait izanen ote da, beraz?

Itur-artea kolektiboa biltzen diren 30 artista gazteen eskultura eta margoak ikustera arratsaldeko 6etatik 8etara joan beharko da, egunero, igandeetan ezik.

Igerilekuko abonoak

Aitzineko alean igariketa ikastaroen berri ematen bagenizuen, oraingoan, berriz, igariketako txartelak dagoeneko salgai daudela erraten ahal dugu, izan ere, lanean ari edo ikasteko baino urean egoteko hobeagoa dago eguraldia.

Denboraldi osorako abonoak 4.125 pta balio du, 3.300 hilabete-koak, eta 475 egun baterako erosi ezker. Hori 16 urtetik goitiko guzientzat, bainan 10 eta 16 urtekoentzat 1.650, 1.200 eta 275 balio du-



Presoen eskubideen aldeko martxa herrian barna iragan zen traba guzien gainetik

Ibilaldi hau hilaren 19an ailegatu zen Larunetik beheiti, eta biharamuneko bortz herrietan barna itzulia egiteko asmoz abiatu ziren Altzateko plazatik. Baimena eskatua baldin bazen ere martxa hau debekatu egin dute Nafarroan, eta Guardia Zibilak hainbat oztopo jarri zuen hasieratik. Horrela, ibilbide guzia espaloitik, binaka, eta taldetxo batetik bertzerara 100 metroko tartearekin egitera behartu zituzten partehartzaileak, eskuetan ikurrik eraman gabe gainera. Guardia Zibila ibiltarien gain-gainean egon zen herria guruzten zuten bitartean, eta lekukoa eraman zuten herritarrei isuna jartzeko mehatxua egin zieten datuan hartzen zizkieten bitartean. Hala ere martxak bere bidea segitu zuen, uztailaren 28an akautuko den bidea.

te txartel berdinek. Oraindik merkeagoa da 7 urtetik 10 urtekoentzat: denboraldi osokoa 700 pta, hilabete-koak 650, eta egunekoak 150. Abonoak egiteko kiroldegira agertu beharko da, astelehenetik ortziralera goiz eta arratsaldez eta larunbatetan goizeko 10etatik eguerdiko 1ak arte.



Labiaga ikastolako argazki erakusketa

Egunotan Kultur Etxean egondu den argazki erakusketa jende aunitzek bisitatu du. Ikastola hasi zenetik bertatik pasatu diren ikasle guzien argazkiak ageri dira, eta irri pixko bat egiteko aukera ematen du, egia erran. Ondoko argazkian, adibidez, lehendabiziko urteko ikasle-irakasle batzuk kanpamenduetan.

flash

San Juan gaua

Udaren etorrera iragartzen duen eguna ospatzeko Lamixine BATek antzerki-besta antolatu zuen Kultur Etxean. Lehenbiziko aldiz helduen antzerki tailerrak bere lana erakutsi zuen jendaurrean.



Kartel lehiaketa

Xabi Pumar lesakarrak eta Jon Altzuguren beratarrak irabazi dute bestetako kartel lehiaketa, eta beraz, goitian ageri den hori izanen da bestetako programaren portada. Bigarren saria Goikori eman diote. 20.000 eta 15.000 pezetako saria emanen diete irabazleeri, hurrenez, hurren.

belardenda
Mediku naturista kontsulta
Legia I, behea • BERA
© 948 630652

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.
© 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

© 948 631462
Altzate I • BERA
Xirail



Endika Mendegiak aureskua eskaini zien Urrezko Ezteiak ospatzen zuten bikoteei. Arg.: Aitor

Urrezko Ezteiak egin dituzten senar-emazteak omendu zituzten

Ekainaren 16an, Nafarroako Kutxak antolatutako ekitaldian

AITOR AROTZENA

Eguraldi ederra lagun zutela, aurten berrogeita hamar urte esposatuak bete dituzten herriko sei senar-emazteek omenaldia jaso zuten ekainaren 16an.

Manuel Lasa eta Naria Etxartek ospakizunera agertzea ez zuten posible izan. Marcelino Goia eta Josefa Goia; Agustina Maritxalar eta Florentina Iturbide; Jose Moreno eta Gregoria Aguilar; Atanasio Ramos eta Carolina Santos eta Antonio Maia eta M^a Josefa Larretxeak jaso zuten Nafarroako Kutxaren omenaldia. Meza ondoren, aureskua eskaini zien Endika Mendegiak plazan. Handik udal pilotalekura jo zuten, bazkaltzera. Jose



Hainbat sari jaso ditu Irain eskolako ikasleen «Akelarrea» antzezlanak

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Irain eskolak aurkeztutako antzezlanak hainbat sari jaso ditu. Nafarroako Gobernuaren ustez, bigarren antzezpen onena izan da eta horretaz gain, gidoiaren originaltasunari eta eszenografia onenari emandako sariak eskuratu ditu Patxi Saez irakasleak zuzendutako taldeak.

Luis Etxegarai alkatea, Calixto Ayesa Nafarroako Gobernuako Ongizate kontseilaria eta Nafarroako

Kutxako arduradun eta langileak zeuden mahaiburuan.

Bazkal ondotik, oroi-

garriak eskaini zitzaizkien omenduei eta dantzarako aukera izan zuten erretiratuek.

flash

❖ Tantirumairu ikastolaren

25. urteurrenako ekitaldiei ekainaren 18an udal pilotalekuan egindako herri bazkariarekin eman zitzaizen akabaila. 25. urteotako argazkien erakusketa ere ikusgai egon da ikastolan. Ekainaren 16an ikasturte akabailako besta ospatu zuten ikasleek.

❖ V. Mendi Itzulia

Beti Gazte elkarteak bosgarren urtez antolatutako mendi itzulian 156 lagunek hartu zuten parte ekainaren 18an, bero eta haize zakarrari aurre eginez. Normalean gehienek 38 kilometroko ibilbide luzea (Aiako Harrian barna) aukeratu badute ere, beroaren eraginez aurten hirutik bik laburra egin zuten.

❖ Euskal presoen eskubideen aldeko ibilaldia

ekainaren 20an ailegatu zen herrira, Bortzirietako bertze herrietan barna pasatu ondotik. Beran binaka ibiltzera behartu bazuen ere, Lesakan ibilaldia galerazi zuen guardia zibilak. Ibilaldian parte hartu behar zuten taldeek jarrera hori salatu zuten.

❖ Arranoko zozketa

Arrano elkarteak, Sanferminak debalde pasatzeko zozketa egin du aurten ere. Bi lagunendako otordu guztiak eta ohatzea eskaintzeaz gain, 50.000 pezeta irabaziko ditu 2.860 zenbakia duen txartelaren jabeak.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



PATXIKU garraio - eskabazioak

Tel: 670 974025



ETXALAR

Haurren Eguna ekainaren 11n ospatu zen

Ikasturte osoan egindako lana erakusteko baliagarria izan zen

PELLO APEZETXEA

Zenbat gauza egiten den urtearen buruan! Horieta batzuk begi aintzinean paratu zizkiguten haurrek, herriko plazan, guzientzat ikusgai. Eskolaren zereginna, neurri tiki batean bederen, ikusteko aukera. Ipuinak irakurri eta saritzean, guraso eta ez guraso heldu franko bildu zen, hondar urteetan bezala. Bazkariak eta arratsaldeko "Sekula guztirako bideak" antzerkiak, Iruñeko Pinpilinpausa taldearen eskutik, hainbat ordu bete zuten.

Langabeentzako laguntza ttikia

Horrela da, galdetakoarekin konparatzen badugu. Ia bortz milioi pezeta galdetu zituen Udalak, hiru langabe herriko lanetan zazpi hilabetez aritzeko. Gobernuak emandakoa, ordea, bi milioitan gelditu da.

Lana lauk eskatu dutenez, denbora laburragorako izan beharko du.

UEMARI geriza

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitate horrek galdetuta, bere geriza eskeini dio Etxalarko Udalak. Izan ere, Espainiako Auzitegi Gorenak herrietako administrazioak euskaraz egitea eta Mankomunitate horretan sartzea gaitzetsi egin du. Berezko hizkuntza erabiltzeko eskubidea ukatu. Horregatik eskatu die laguntza herri guztiei UEMAK.

Aparkaleku bila

Aparkaleku bila segitzen du Udalak, ez baita erraza karrika barnean edo ondoan lurrik erostea. Tokia beharrezko izanik, jendearen ohiturak ere aldatzen joan beharko da, plaza ondoko bezalako auto-multzatzeak ebittatu nahi badira.



Haurrak, helduekin batera, Pinpilinpausaren antzerkiak gozaten, pilotalekuan.

Pello Apezetxea



Lehen jaunartzea

Maiatzaren azken igandean egin zuten lehen Komunioa Jone, Andrea, Gorka eta Iñakik.

PIKABEA
Molinero drogerian galdetu
pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

HARITZPE
948635235
948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
© 948635290 **ETXALAR**

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

IGANTZI

San Juan Xar eta Besta Berri egunak ospatu ditu herriak

Hilabete batez igandeko meza San Juan Xarren eginen da

AMADEO TXOPERENA

Joan den larunbatean, giro ederrean joan zen San Juan Xar eguna. Goizetikan jende aunitz hurbiltzen hasi zen, bere hankak eta larrua iturririko urarekin igurtzeko asmoz. Egurdiko meza entzuteko aukera ere izan zen. Ondotik herriko dantzari ttikiek bere dantza saioa eskeini zuten zubian eta, urtero bezala, San Juan erroskilak jan eta erosteko modua izan zen. Hemendik aitzinera, hilabete batez igandeko meza han emanen da.



Urteroko ohitura segituz, jende aunitz hurbildu zen larunbatean San Juan Xarreko iturrirra.

Artxibokoa

Korpus edo Besta Berri Eguna

Igandean berriz, Besta Berri edo Korpus eguna ospatu zen. Denbora aunitz erdi galdua egon arren, urtetik urtera indar gehiago hartzen joan da. Aurten ere

herria ederki apaindu zuten iratze eta oihaletan, prozesioa pasa zedin. Meza ondotik, herriari itzulia emanen, berriz ere heldu den urterako gorde zen dena.

Oihan enkantea

Pionborda-Irisarri inguruan oihan aprobetxamendua egiteko enkantea eginen du Udalak. 703 insignis pinu, 2.617 alertze eta 47 haritz

amerikano ditu loteak, 1.035 m³ zur emanen dutenak. Haserako prezioa 9.580.030 pezeta-koa da. Uztailearen 10ean akautuko da eskaintzak aurkezteko epea.

Personaiak

Joxe Mari Goia txirrindularia seigarren dago Euskadiko Irekian

Joxe Mari Goia txirrindulari igantziarra hirugarren gelditu zen ekainaren 18an Astigarragan burutu zen mendi bizikleta proban. Proba hau Euskadiko Open edo Irekirako baliagarria zen. Saillkapen orokorrean seigarrena dago Ciclos Larequi taldeko txirrindularia. Garai batean Igantzin sortu zen txirrindulari taldetik bi bertzerik ez dira gelditzen, baina emaitza ederrak eskuratzen dituzte alditik aldira. Segi horretan!



Joxe Mari GOIA



MARTIKO

Gure baserrietako produktuak

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA



Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzioko Bentak • © 948 627572 • Faxe: 948 637508

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • © 948 637 411 • Faxe: 948 637 313

Jose Canabal elektrizista

© 948 637541
© 666 575899
IGANTZI

BEXUEN



25 metro goratzen den pluma
Kabrestante urrutiko agintearekin

Tel: 670 974025 • 667 418661

ARANTZA

Ibilgailuen zergari buruzko informazioa banatu da

Gaur egun 400 bat ibilgailu daude herrian

ELIXABET ETA GARBINE

Dagoeneko etxeetan hartu izanzen duzue Herriko Etxeak ibilgailuen zergari buruz bidalitako informazioa. Lehenengo eskutitz honetan, etxe bakoitzean dagoen ibilgailu kopurua eta bankuko kontu korrontearen zenbakia ongi dauden begiratu behar da. Erreklamazioak egiteko epea uztaillaren 3a arte irekia egonen da eta egun horretatik aitzinera zerga horiek bankuaren bidez kobratzen hasiko dira. Herriko Etxetik datu batzuk ere jakinarazi dizkigute. Herrian 400 bat ibilgailu daude eta zergarekin bil-

duko den dirua hiru milioi terdi pezeta ingurukoa izanen da.

Bertzalde, jakin behar dugu Herriko Etxeko idazkaritzaren ordutegia aldatuko dela eta udako ordutegia oinarritzat hartuz, hemen dik aitzinera 8etatik 2etara egonen da zabalik.

Bi udal langile lau hilabeterako

Urtero bezala Nafarroako Gobernuak dirulaguntza luzatu dio Herriko Etxeari, herriko lanak egiteko langile batzuk hartzeko. Aurtengo langileak David Iturria eta Juan Mari Telletxea izanen dira eta



Herrian dauden 400 bat ibilgailuek hiru milioi terdi pezetako diru sarrera ekarriko diote Herriko Etxeari, zergen bidez. Artxibokoa

lau hilabeterako kontratua izanen dute. Hauen lana garbitzea, pintatzea, espaloiak eta paretak egitea, etabar... izanen dela aipatu behar da.

Presoen aldeko martxa

Euskal presoen eskubideen aldeko martxa nazionala, ekainaren 19an ailegatu zen herrira. Nafarroan Espainiako Gobernuak duen ordezkariak Bortziritan debekatu egin

zuen martxa, nahiz eta ahal bezala, egitea utzi zuten. Herrira arratsaldean ailegatu zen martxa eta trikitixarekin kalejira egiten saiatu baziren ere, espreski etorritako guardiazibilek, kargatuko zutela mehatxatu zuten eta egin gabe utzi behar izan zen.

Ternida eguna

Ekainaren 18an egin zen Ternida eguna. Eguraldi ona, nahiz eta goian izugarritzko haizea ibili, probextuz jen-

detza haundia hurbildu zen, goiz-goizetik. Arantzakoak ere aunitz izan ziren. Bordatan eta zelaietan bazkaltzera gelditu ziren gero. Senberrekobordan, Ekaitzak antolatutako bazkaria egin zen eta elkarrekin berak jarri zuen kafea eta trikitixa.



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

<p>IKUSMENAREN BERRESKURATZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Miopia • Bista alfertua • Estrabismoa • Begi lausoak-kataratak 	<p>GIHARRE ARAZOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bixkortzea • Artritria, erreuma • Artrosia, Lunbalgia • Bihurdurak, etab... 	<p>MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA</p>	<p>ONDORIOETATIK INDARTZEKO</p> <ul style="list-style-type: none"> • Diabetia • Asma • Larru azaleko alergia • Buruko mina • Zizareak • Oinen izerdia • Prostata, etab...
<p>KONTSULTA ORDUTEGIA Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu</p>		<p>San Marcial, 7-4 IRUN</p>	

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

MENGHINI AKORDEOIAK Angel Manuel Belio

AKORDEOI eta TRIKITIXA KLASEAK • MUSIKA LENGUAIA

Kirolaz gain, MUSIKA ere egin ezazu

DOMIÑENEA Etxea • San Andres Karrika, 40 NARBARTE • © 943 - 61 50 55 • 657 772633

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

DONEZTEBE

Iñaki Lopetegi irundarra nagusitu da aurten ere XXII. Herri Krosean

78 korrikalarik aurre egin zioten eguraldi sargoriari

TTIPI-TTAPA

Irungo Bidasoa Atletico taldeko Iñaki Lopetegi nagusitu zen ekainaren 18an jokatu-tako 22. herri krosean, zortzi kilometroko ibilbidea 28 minutu eta 14 segundutan egin ondotik. Mendillorriko Tomas Garciari hamar segunduko abantaila atera zion. Hirugarren postuan, Hiru Herri taldean ari den Angel Garate iruritarra sailkatu zen, 28 minutu eta 54 segundurekin. Laugarren postua Fernando Etxegarai beratarrarentzat izan zen eta ondotik sailkatu ziren Doneztebeko Maddi Ruiz eta Santi San Miguel, Berako Jabier Altzuguren eta Doneztebeko Eugenio Perez, Juan Mari Apeztegia eta Santi Uterga. Nesketan, seniorretan bi partehar-



Seniorretan haseran aitzinean ibili zen taldea. Gero, Lopetegi gailendu zen. Argazkia: ttipi-ttapa TB

tzaile bakarrik izan ziren. Iruñeko Rosa Orofino aisa nagusitu zen, 16 minutu eta 35 segunduko denborarekin, baina txalorik handienak Ane Otxandorena elgorriarrak jaso zituen. Gazteetan Fernando Etxezarreta irundarra gailendu zen, Eduardo Bertiz eta Iñigo Mangado doneztebarren aitzinetik.

Beteranoetan, gizonetan Jose Luis Guillenek irabazi zuen, Berako Batista Telletxearen aitzinetik. Emakume helduetan, Legasako Begoña Pobedano izan zen garaile. Kategoria tikiagoe-tan, maila berezian, nesketan Doneztebeko Itziar Jorajuria, Idoia Perez eta Elena Zabalak

hartu zuten parte. Mutikoetan, Beñat Leiza doneztebarra nagusitu zen, Ander Basterra eta Emilio Zabala herritarren aitzinetik.

Aurrebenjaminetan, nesketan, 9 korrikalari atera ziren. Elgorriagako Olaia Olazar izan zen azkarrena, Oihana Mitxelena eta Nerea Telletxearen aitzinetik. kategoria honetan zortzi mutiko atera ziren. Donamariako Iñigo Goñi izan zen lehena, Doneztebeko Josetxo Ezkurra eta Jorge Ostiz giblean utzita.

Benjaminetan, nesketan, Itziar Bertiz eta Ainhoa Blas doneztebarrak bertzerik ez ziren ateri. Zortzi mutikoen artean, Berako Mikel Morcillo nagusitu zen, Iñaki Lopetegi irundarra eta Jaime Sein doneztebarraren aitzinetik.

Alebinetan, lau neska ateri ziren. Kristina Mutuberria elgorriagarra izan zen azkarrena, bigarren postuan batera ailegatu ziren Jaiona Ordoki eta Maider Mindegia doneztebarrak eta hirugarren izan zen Dorleta Larque beratarra. Bortz mutikoen artean, Pascual Bertiz eta Niko Mindegia doneztebarrak batera sartu ziren lehen postuan. Iñaki Telletxea doneztebarra izan zen bigarren, Gazteluko Pello Mitxeo hirugarren eta Doneztebeko Mikel Telletxea laugarren.

Infantiletan lau mutiko bertzerik ez ziren ateri. Xabier Elejalde donostiarra izan zen irabazle, Berako Gwendal Larque bigarren, Doneztebeko Xanti Mindegia hirugarren eta Jabier Bertiz doneztebarra laugarren.

BEINTZAKO OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

INTERVIDE
Bideo Profesional erreportaiak • Ezkontz erreportaiak
Tel: 948.599.055

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

Ibarrala Mertzeria
Haurrendakoa arropa
0-14 urte
Parroquia kultura & - Doneztebe
948450433

Mariposa LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

Udaberri eta udako lentzeria eta bainujantzien kolekzio berria

MALEERREKA

Uso-ehiza postuak enkantean atera ditu Beintza-Labaiengo Udalak

Uztailaren 26ko eguerdian eginen da enkantea Herriko Etxean

AMAIA URROTZ

Beintza-Labaiengo Udalak uso ehizarako postuen enkantean eginen du uztailaren 26an, eguerdiko 12etatik aitzinera Herriko Etxean. Ehiza-koto hauek lau urterako emanen dira eta enkantea ahoz eginen da.

Lehendabiziko lotean, Aieletan 1etik 6ra zenbatuak dauden postuak emanen dira eta haserako prezioa 1.800.000 pezetakoa da.

Bigarren lotean, Aieletan 1etik 8ra zenbatuak dauden postuak emanen dira eta haserako prezioa 600.000 pezetakoa da.

Hirugarren lotean, azkenik, Lotzabianen 1etik 12ra markatuak dauden postuan emanen dira. Haserako prezioa 800.000 pezetakoa da.

Enkantean tantu ba-



Saneamendu lanak egin eta Beintza eta Labaiengo karrika gehienak moldatu badituzte ere, Labaiengo plaza berritzea falta da. Artxibokoa

koitza mila durokoa izanen da eta parte hartu nahi dutenek, haserako prezioaren %5 jarri beharko dute fidantza gisara. Lehendabiziko enkante hori hutsean geldituko balitz, abuztua-

ren 5eko eguerdiko 12etan eginen litzateke bigarrena. Honetan, %10 jautsiko litzateke haserako prezioa. Hau ere hutsean geldituz gero, abuztuaren 11n eginen litzateke hirugarren

enkantea, %20eko jautsierarekin.

Saneamendu lanak bukatu dira

Beintza-Labaienen bukatu berri dituzte urhornidura eta sanea-

mentu sarea berritzeko lanak. Lan hauen aurrekontua 130 milioi pezetakoa zen eta Arraiozko Larraioz Arregi erakuntza enpresak egin ditu. Zuloa egin zela aprobetxatuz, gasa ere sartu egin du Repsol enpresak.

Beintzako karrikak moldatu badituzte ere, Labaiengoak oraindik moldatu gabe segitzen dute. Lan hau heldu den hiru urteko Azpiegitura planean sartu nahi du Udalak. Izan ere, plaza txukundu baldin badute ere, karrikek zakar xamar egoten segitzen dute.

Lehen jaunartzea egin dute bi neskak

Maiatzaren 28an lehen jaunartzea egin zuten Beintza-Labaienen bi neskak: Aitziber Eratsun eta Maite Bertiz. Zorionak!

BERTIZARANA

44 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten Bertizaranako Udalak

Legasako karrikak moldatzen eginen da inbertsiorik handiena

TTIPI-TTAPA

Bertizaranako Udalak 44.624.642 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten, apirilaren 7an egindako batzarrean onartutako udal aurrekontuaren arabera.

Inbertsio handienei dagokienez, Legasako karriken urbanizaziorako 14 milioi terdi pezetako inbertsioa onartu da. Proiektua Fernando Abad arkitektuak idatzi du eta lan honen lehendabiziko fasea egin da dagoeneko. Bigarren fa-

seko lanak Navex Consultores enpresak eginen ditu, 11.299.000 pezetaren truke.

Bertzalde, lanak kontzejuek eginen badituzte ere, Narbarte eta Legasako saneamendu lanetarako memoria eta proiektua Bertizaranako

Udalak ordainduko ditu. Narbarteak 572.000 pezetako aurrekontua du eta Legasakoak 2.500.000 pezetakoa. Narbarten zeharbidea berreskuratzeko proiektua izanen da eta Legasakoan zolaberri-tzea ere sartzen da.

Legasako zubia ere kontzejuek moldatuko du, baina 300.000 pezetako dirulaguntza jasoko du Bertizaranako Udaletik.

Legasako karrikak moldatzen 150.000 pezetako inbertsioa eginen da.

Eskualdeko ikasleek sari ugari lortu dituzte Nafarroako Literatur Lehiaketetan

Baztan, Malerreka eta Bidasoako trikitilari txapelketa hasi da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak hamargarren urtez antolatutako euskarazko antzerki, literatur, irakurketa, dialektologia eta etnologia lehiaketetako sariak banatu ziren ekainaren 21ean Iruñeko Nafarroako Jauregian. Lehiaketa honetan Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatuak Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ikasten duten 564 ikasle hartu dute parte. Beti bezala, eskualdeko ikasleek hainbertze sari ekarri zituzten.

Literatura

Literatur lehiaketan, Lehen Hezkuntzako narratiba sailean, Berako Labiaga ikastolako Maite Telletxea Martiarenak hirugarren saria eskuratu zuen, «*Bi bixki abenturetan murgildurik*» lanarengatik.

DBHko lehen eta bigarren ikasturteko ez zuzendutako lehiaketan, olerki sailean, hirugarren saria eskuratu zuen Goizuetako Aritz Zubiri Gamiok, «*2000 efektua*» olerki sortarengatik. Narratiban, berriz, bigarren saria erdietsi zuen Urdazubiko Xabier Ariztia Urrizak, «*Egiaren zalduna*» lanarekin eta hirugarren saria Goizuetako Itxaso Lujanbio Apezteak, «*Ditxosozko autoproba*» lanarekin. Ipuine-



Urtero bezala, eskualdeko ikasleek hainbat sari lortu dituzte Nafarroako Gobernuak antolatutako literatur eta antzerki lehiaketa ezberdinetan.

Diario de Navarra

tan, lehen saria etxeratu zuen Aranoko Maider Ansa Zugarramurdik, «*Eskutitzak*» ipuinarekin.

DBHko hirugarren eta laugarren mailetan, olerkigintzan, bigarren saria lortu du Berako Toki Onan ikasten duen Joseba Olagarai Goienetxe etxalartarrak, «*Argazkia*» lanarekin. Narratiban, hirugarren saria Leitzako Amazabal institutuko Aroa Huarte Zubillagarendako izan da, «*Bizitza oso bat*» lanarengatik.

Batxilergo ikasleen artean, Lekarozko Institutuko Asier Larretxea Gortari arraioztarrak hainbat sari eskuratu ditu: Narratiban eta ipuinan lehen saria, «*Ez*» eta «*Itzalaren irudia*» lanekin eta olerkian bigarren saria, «*Borreroen marioneta*» lanarekin. Olerkian hirugarren saria institutu bereko

Amia Iturralde Elizetxe jaso zuen («*Maitatzea sufritzea da*») eta narratiban ere, hirugarren saria ikastetxe bereko Saioa Goñi Irigoienek etxeratu zuen, «*Galdutako ametsak*» lanarekin.

Antzerkia

Antzerki lehiaketan, hiru sari jaso zituen Lesakako Irain eskolaren «*Akelarrea*» antzezlanak eta bertzea Arantzako eskolakoek aurkeztutako «*Kandidoren apostu latza*» lanak. Lesakarrekin gidoiaren originaltasunari dago-

kion bigarren saria, antzeppen onenari emandako bigarren saria eta eszenografia onenari emandako lehen saria eraman zuten. Arantzarekin, berriz, antzeppen onenari emandako hirugarren saria lortu zuten.

Irakurketa

Irakurketa lehiaketan sari guziak eskualdera etorri ziren. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan Arantzako eskolako Munduko herri-rik politena taldearentzat izan zen. Lehen Hezkuntzako hirugarren

zikloan Urdazubi-Zugarramurdiko Txotxi taldeak eskuratu zuen eta DBHko lehen zikloan, eskola bereko Katukumeak taldeak.

Dialektologia eta etnologia

Dialektologia eta etnologia lehiaketan ere ez ziren urruti joan sariak. DBHko lehen eta bigarren ikasturtean, lehen saria Goizuetako Xalto eskolako Maider Ansa aranoarrak etxeratu zuen, «*Sorginak eta beste pasadizoak*» lanarekin. Bigarren saria Arantzako Xabier Iturria eta Xabier Aranbururentzat izan zen, «*Elizako ohituren aldaketak*» lanarekin eta hirugarrena Goizuetako Naiara Arozena Zugarramurdirentzat, «*Garai bateko haurtzaro eta gaztaroak*» lanarekin.

DBHko hirugarren eta laugarren mailetan, lehen saria Berako Toki Ona Institutuko Enara Arrobarren Aranburu lesakarrantzat izan zen, «*Manuel Aranburu Ameriketean*» lanarekin eta hirugarren saria institutu bereko Maite Bidarte Sota lesakarrantzat, «*Lesakar sakristau baten oroimena*» lanarengatik.

Baztan, Malerreka eta Bidasoako aldeko trikitilari txapelketa hasi da

Igandean Etxalarren egin den saioarekin hasiera eman zaio Lesakako Trikitixa eskolako antolatutako Baztan, Malerreka eta Bidasoako trikitilari txapel-

ketari. Larunbat honetan, uztailek 1, arratsaldeko 5,30etan bigarren saioa izanen da Donezteben eta igandean azkena, arratsaldeko 7,30etan Lesakan.



GOIZUETA



Lehen jaunartzea eta musika eskolaren kontzertua

Argazkiko bederatzi neska-mutiko hauek izan ziren ekainaren 11n lehen jaunartzea ospatu zutenak. Bestalde, arrakasta ikaragarria izan zuen ekainaren 10eko musika eskolaren kontzertuak.

Ikastaroak antolatu ditu udarako Gazte Asanbladak

Marrazki lehiaketa bat ere martxan dago

ESTEBAN AROTZENA

Herriko Gazte Asanbladaren eta Gizarte Zerbitzuaren elkarlanari esker, uztaila paregabea izateko aukera eskaini zaie herritarrei,

klase askotako ikastaroak egin ahal izanen baitituzte hilabete osoan.

Antzerkia, dantza, graffitia, tatuaiia... dira aukeretako batzuk. Ez da esan beharrik, noski, jende gehienak ize-

na ematen duten ikastaro motak izanen direla azkenean burutuko direnak.

Gazte Asanbladari buruz hitzegiterakoan aipatu beharrekoa da erakunde honek antola-

tu duen marrazki lehiaketa ere. Goizueta edo Gazte Asanblada bera hartu beharko du gaitzat irabazlearentzat jarria dagoen 10.000 pezetako saria eskuratu nahi duenak. Antola-

tzaileei egokia iruditzen bazaie, kamisetak eginen dituzte marrazki irabazlearen irudiarekin.

Autobusaren ordutegi berria

Goizueta eta Hernani lotzen dituen autobusa udako ordutegian dabil ekainaren 26az geroztik. Goizeko 9etan eta arratsaldeko 3etan ateratzen da herritik. Hernanitik berriz, 12etan eta ilunabarreko 7etan.

ARESO

Ikasturte bukaerako ekitaldietan murgilduak

San Pedroetarako ekitaldiak prestatu dira

JUANA MARI SAIZAR

Aresoko ikasleak «Lagunekin baratzean» txotxongiloak ikustera joan ziren Leitzako eskolara. Biharamonean, Patxi Zubizarreta idazlea Aresoko eskolara etorri zen aurretik bere liburuak irakurri zituzten eta horiei buruzko galderak egin zizkieten, irakurzaletasunari nolabaiteko indarra eman nahian. Beste egun batez, ikasturteari bukae-

ra emateko, berriro Leitzara joan ziren beste txotxongilo batzuk ikustera. Lehen mailakoak Tolosara joaten dira igeriketa ikastaroetara.

Eskolako antzerkia

Ekainaren 23an, ikasturteari bukaera emanez, antzerkia egin zuten «Mito, Mito eta Kitto» izenburuarekin. Pertsonai mitologikoei buruz izan zen antzez-lana, Basajaun, Eate,

Ortzi, Hodei, Lamiak, Tartalo, sorgiñak, Galtzarri, Akerra eta Herensugea.

San Pedroak prestatzen ari dira

Lagun-Artean antolatutik dauden Aresoko gazteak ekainaren 30ean eta uztailearen 1 eta 2an ospatuko diren San Pedroak prestatzen ari dira. Programazio honekin batera, uztailearen lehen arratsaldeko 6etan, Euskara Zerbi-



Ekainaren 19 eta 20an Orioko aterpean izan ziren eskolako umeak.

San Juan sua

San Juan sua egin zen urtero bezala. Umeek bildutakopaper eta kartoiarekin egin ziren suak. Afaria egin zuten, trikitilari eta panderojoleen animazioarekin, gurasoek lagunduta

Bizkortzen enpresak hartu du igerilekuen ardura uda honetan

Iñurritzta alderdian industrialdea jartzeko lehen pausuak eman ditu Udalak

JOSEBA AZPIROZ

Hilaren 17an ireki ziren udal igerilekuak. Igerilekuak orain arte lehiaketaren ondorioz adjudikatzen baziren ere, igerilekuak berak sortzen dituen gastuei aurre egiteko adina dirurik ematen ez zutenez, aurten lan hauetan aditua den Bizkortzen, S.L. entpresari eman zaio instalakuntzen kudeaketa. Denboraldia ekainaren 17tik irailaren 3a bitarte izanen da. Irailean eguraldi ona izan ezker, denboraldia bi astez luzatuko da.

Industrialde berria eginen da Iñurritzta inguruan

Udalak, maiatzean egindako batzarrean, Iñurritzta alderdian industrialde berri bat kokatzeko araudi urbanistikoaren aldaketa onartu zuen. Eraiki nahi den industrialdeak 22.000 metro koadro izanen ditu eta Sarrio eta Olaberriko araztegia eta Leitzaran erreka eta Sakuluko kamioa artean kokatuko da.

Bestalde, 2001-2003 Nafarroako Gobernuako Toki Azpiegitura lanen

Hirurteko Planean sar daitezzen, hurrengo obren zerrenda onartu zuen Udalak aipaturiko batzarrean: Patxi Arrazola auzoko ur-hornidura, saneamendu eta zolaberritzea, Sakulu auzoko bidea moldatzea eta Olaberri inguruan zubi bat eraikitzea. Zubi hau, Iñurritztan egin nahi den industrialdea eta Landako industrialdea barrena, herriko hainbat auzoetako trafikoa bideratzeko baliagarria izanen litzateke.

Sexualitatea eta gaztediari buruzko kanpaina asteburuan

Nafarroako Gazte Kontseiluak, Iturramako FOSHZ ("Cofes" delakoak), Andraizek, HIESaren aurkako batzordeak, Andraizek, Emakume Internazionalistak eta EGHAM-ek «Gozamenez, sexualitatea eta gazteria» kanpaina antolatu dute -Leitzan, Drogomenpekotasunaren Prebentzio Programako arduradunak eta Irauli Gazte Asanbladak antolatuko dute, Udalaren laguntzarekin-. Nafarroan eginen den kanpaina ho-

nek Iruñea, Tafalla, Biana eta Leitza-Lekunberrin izanen du hasera. Esperientzi hauen arabera, Nafarroako beste eskualdeetan ere eginen da. Kanpainaren helburuak, ohizko zenbait lekutan nahiz leku publiko batzuetan, sexualitatearen presentzia agerian uztea, sexualitatearen eta hura adierazi eta bizitzeko modu ugarien gainean ikuspegi on, errespetuzko eta aberasgarri bat erakustea, sexualitatearen alde, ororen gainean gogoeta eta eztabaida egiteko bide ematea eta gazteei beren herrian eta komunitatean sexualitate-alorrean aritzen diren elkarteak eta alor horretan dauden baliabideak jakitera ematea dira.

Prestaturiko ekitaldi eta tailerrak hauek dira: Hilaren 28an, arratsaldeko 8etan, «Zai beti zai» antzezlan, zinemari; hilaren 29an, ordu berean, hennazko tailerra; hurrengo egunean, ostiralean alegia, arratsaldeko 6etan, graffiti tailerra Lekunberriko plazan eta uztailaren 1ean, goizeko 11'30etan, fantasiako



Joan den urteko Plazaola aldizkariaren azala. Aurtengo azalaren lehiaketan parte hartzeko epea bukatzeko puntuan dago.

makillaia tailerra Lekunberrin, arratsaldeko 5etan masaia tailerra Leitzan eta 8etan, afaria musikarekin (txalaparta,...) karrapean, 1000 pezetaren truke.

Plazaola aldizkariaren azal lehiaketa

Ostiral honetan, ekainak 30, bukatuko da Plazaola aldizkariaren azalaren lehiaketan parte hartzeko epea. Kartelak 50x65 zentimetrokoak izanen dira, koloretan eta egurrezko 2 zentimetrotako listoi batez inguratuak aurkeztuko dira Aurreran, lehiaketa hauetan ohiakoa den sistema erabi-

liz. 16 urtetik beherako partaideen karteletan honako testu hau azaldu behar da: Plazaola-Leitzako aldizkaria-22. zenbakia. 17 urtetik gorako karteletan berriz: Leitza 2000 - Tiburzio donearen festak - 22. zenbakia.

Aurkeztutako lan guzietan erakusketa bat egingo da Aurreran, uztailaren 2an eta erakusketa horretara azaltzen diren pertsonen erabakiko dute irabazlea. San Tiburzio egunean sariak banatuko zaizkie irabazleei: 16 urtetik beherakoei oroigarria eta 17tik gorakoei 25.000 pta. Lanak Aurreraren esku geldituko dira.

Begiratu gure zerbitzuak, zure lana erraztuko dute!!

- INPRENTA** • Fakturak, Albaranak, Kartak... zure enpresa edo saltokian behar duzun guztia
- DISEINUA** • Irudi korporatiboa eta bere aplikazioa gauza desberdinetan
- ZIGILUAK** • Kautzoko zigiluak...

informazioa:

Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA • ☎ 948 63 11 88 • kulturkari@euskalnet.net

Eskatu aurrekontua

KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

BAZTAN

Nafarroako odol-emailek urteko batzarra egin zuten Elizondon

Mila lagun bildu ziren ekainaren 18an egindako ekitaldian

TTIPI-TTAPA

Nafarroa osotik etorritako mila odol-emaile inguru bildu ziren Nafarroako Odol Emaleen Elkarteak (Adona) ekainaren 18an Elizondon egindako urteko batzarrian.

Nafarroako elkarteak da estatu osoan kide gehien dituen elkarteak eta 76 ordezkaritza daude herrialde osoan. Aurtengo batzarra eta bestaren antolaketa Txuma Urizek zuzentzen duen Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko delegazioaren esku egon da.

Gan den urtean Nafarroako 25.000 odol emailek 32.725 odol emate egin zituzten. Gainera, 1.362 odol emaile berri izan ziren, horietako aunitz gazteak. Adona elkarteak 44.561.659 pezetako aurrekontua izanen du aurtun.

Batzarra baino lehen meza eman zen Santiago elizan, Elizondoko abesbatzak kantatua. Eliz atarian, Iñaki Urrutia dantzariak au-



Sugeei buruzko informazioa jaso zuten Baztan ikastolako umeek

Uda garaian hain aipatua izaten den «subea» hurbiletik ikusi eta ukitu zuten ikastolako umeek. Pantxi albaitariak subeei buruzko informazioa eman zien eta umeek egindako galderari erantzun. Saio polita eta interes handikoa izan zen ikasle nahiz irakasleentzat.

rreskua eskaini zien odol-emaileei. Nafarroako eta Baztango ikur-rekin batera, txarangaren laguntzaz, plazara gan ziren eta bertan ha-

meketako ederra dastatu zuten. Eskulangileak ere aritu ziren eta Baztango dantzariak saioa eskaini zuten, bazkariaren aitzinetik.

Udako Zinea Elizondoko Merkatu Plazan

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, areto itxietatik kanpo zinea ikusteko aukera eskainiko du Baztango Kultur Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuaren Arte eta Kultura egitarauaren barnean.

Asteartean hasi ziren Elizondoko Merkatuko Plazan gaueko 10,30etan eskainiko diren pelikulen emanaldiak, «La momia» filmearekin. Ortzegunean, ekainaren 29an, «Novia a la fuga» emanen dute. Heldu den astean, uztailearen 4an, «Tarzan» izanen da ikusgai eta uztailearen 6an «Angus» (euskaraz eskainiko den pelikula bakarra). Uztailearen 11n «Deep Blue Sea» filma emanen dute eta, azkenik, uztailearen 13an, «Toy Story 2».

Bertzalde, kultur egitarauaren barnean, margo erakusketa berri bat zabaldu da Arizkunenea Kultur Etxean. Pello Azketaren lanak ikusgai izanen dira uztailearen 21a arte.

Personaiak

Josetxo Galarregi Baztan futbol talde nagusiko entrenatzaile berria

Josetxo Galarregi 31 urteko elizondarrak hartu du Baztan futbol talde nagusia 2000-2001. denboraldian zuzentzeko ardura. Azken bi denboraldietan taldea zuzendu duen Pedro Barandallak ekainaren hasieran jakinarazi zuen River Ebro taldearekin fitxa egitekotan zela. Honela, heldu den denboraldirako planifikazioa hankaz goiti gelditu zen, baina Josetxo Galarregik bere gain hartu du Preferentean ariko den taldea. Aurtengo denboraldi kaxkarraren ondotik, animoak altzatzea izanen da Josetxoren lehendabiziko lana. Hori errateko sobera abudo bada ere, berri ere hirugarren maila berreskuratzeko borrokan egon nahiko du Baztanek.



Josetxo GALARREGI

JATETXEA
 © 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

**MENDI
 OSTATUA**

Santiago 25 - © 948 580313
 ELIZONDO

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

ARGIBEL OPTIKA

© 948 581 391
 Santiago 62 - ELIZONDO

Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

BAZTAN

Hirurteko Planean sartu nahi dituen lanen berri eman du Udalak

2001-2003 Hirurteko Azpiegitura Planean egin nahi dituen inbertsioen berri eman dio Balleko Udalak Nafarroako Gobernuari.

Ur-hornidura eta saneamendu lanak egin nahi dira Amaiur, Erratzu, Arizkun, Elbete, Elizondo, Irurita, Aniz eta Lekarozen. Ondotik zolaberitze lanak egingen dira. Eraberean, Amaiur, Elbete, Elizondo, Oronoz, Arraioz, Gartzain eta Iruritako karrika batzuk ere zolaberritu nahi dira.

Argiak jarri nahi dira Almandoz, Aniz, Berroeta, Ziga, Oronoz, Gartzain, Lekaroz, Irurita, Elizondo, Elbete, Amaiur, Azpilkueta, Erratzu eta Arizkongo auzo eta karrika batzuetan. Elizondoko Herriko Etxea moldatzea ere eskatu da. Azpilkueta, Almandoz, Ziga, Irurita eta Arraiozko kanposainduetan berritze lanak egitea ere eskatu du Udalak. Herri guzietan bideak eta pistak moldatzea eskatu da. Orain, Nafarroako Gobernuaren erantzunaren zain egon behar.



Duela 15 bat urteko zikiro jatea eskolako atarian egin zen: Joxe Marixol, Rosa, Nati, M^a Jose eta Arantxa. Bizkarra ematen dagoena M^a Rosario. Aurtengoan pilotalekuan izanen da.

Azpilkuetako Sanferminak uztailaren 6tik 10era

Ortziralean eta larunbatean Gorramedi 10 ariko da

Ortzegune, uztailak 6 San Fermin bezpera
12etan txupinazoa beste hasmenta emateko. **9etan** ezkil-jotzea. **9,30etan** herriafaria Herriko Ostatuan, JOXE ANGELek alaitua. Ondoren dantzaldia plazan JOXE ANGELekin.
Ortzilerie, uztailak 7 San Fermin Egune
11etan Meza Nagusia Azpilkuetako elizan. **12etan** luntxa Herriko Ostatuan. **8etatik 10etara** eta **12eta-**

tik 3,30etara dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin.
Larunbeta, uztailak 8 Haurren Egune
5etan mus txapelketa. **5,30etan** haur eta helduendako txokolatada. **8etatik 10etara** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. **9,30etan** emakumeen afaria. **12etatik 3,30etara** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin.

Igandea, uztailak 9
11,30etan Meza Nagusia. **8etatik 10etara** eta **12etatik 3,30etara** dantzaldia FRANCISCOrekin.

Astelehena, uztailak 10 Zikiro-jate Egune
2etan zikiro-jatea herriko pilotalekuan JOXE ANGELek alaitua. **9,30etan** dantzaldia JOXE ANGEL soinulariarekin, aurtengo beste akabaila emanez.

flash

❖ **Iñaki Mihura**
 Arraiozko korrikalaria pista gaineko atletismo txapelketetan buru-belarri sartua dago. Logroñon, hiru kilometroko proban hirugarrena izan zen, baina ez zuen Espainiako txapelketan parte hartzeko markarik lortu. Bero ikaragarria egin zuen eta 40 gradutan lasterka egiteak ez zion mesederik egin arraioztarrari. Asteazkenean Anoetan berriz ere saiatzekoa zen.

❖ **Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa**
 Baztango taldeak Nafarroako Herriarteko pilota txapelketaren final erdietara sailkatzea lortu du, Goizueta kanporatu ondotik. Larunbat honetan, joaneko partidak jokatu ditu beratarren kontra Beran eta heldu den aste hondarrean itzuliko partidak jokatuko dituzte.

❖ **Ehiztarien etxola Betarten**
 Baztango ehiztari eta arrantzale elkarteak ehiztariendako eta mendi aterpe gisara baliagarri izanen den etxola bat Betarte inguruan eraikitzeko baimena eskatu du. Balleko Udalak baieztua eman du eta orai Nafarroako Gobernuak onartu beharko du.

BAZTAN
ALTZARIAK
 zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

MENDIALDE
Jatetxea

AMAIUR • © 948453060

BAZTAN FUNERARIA
 EHORKETA ZERBITZUAK
 HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 TRASLADOAK
 Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

Laugarren karrila ireki dute Almandozko tunela eta Maringo zubiaren artean

Ekainaren 20an zabaldu zen 1.760 metroko bide berria

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Herrilan departamenduak laugarren karrila zabaldu zuen Almandozko tuneletik Maringo zubira artean. 1.760 metroko luzera du moldatutako tartean. Gisa honetara, Belate eta Almandozko tunelak Zozaia aldera igaro ondotik, aitzintzeko aukera izanen dute goitik beheiti doazen autoek. Lana Asfaltos Biurrun enpresak egin du 75,1 milioi pezetaren truke (haserako aurrekontutik %20,62ko jautsiera). Karril berriak hiru metro terdiko zabalera du eta metro erdiko bide bazterra.

Arraizko Benta-Zozaia errepide zatia- ren moldaketa 1995. urtean akitu zen eta geroztik hiru karril zituen, bi Iruñea aldera eta bakarra Oronoz-Mugairi aldera. Kasik lau kilometrotan ezinezkoa zen kamioiak aitzintzea. Lan honekin, trafikoa arintzea espero dute Herrilan Departamenduko arduradunek.

Bertzalde, errepide berean lanean segitzen du Herrilan Departamenduak, Belate eta Almandozko tunelak aztertzen ari baitira. Jakina denez, lur erori batzuen ondorioz hiruzpalau aldiz itxi egin behar izan dira tunelak eta Nafarroako Gobernuak «azterketa zehatza eta zorrotza» egitea eskatu du, erori horien arrazoia jakiteko.



Ikasturte akabailako besta San Francisco Javier eskolan

Ekainaren 10ean ikasturte akabailako besta egin zuten Elizondoko San Francisco Javier eskolan. Eskolako pilota txapelketan, nesketan Belen Cebriain eta Eva Olaizola izan ziren irabazle, finalean Amaia Larretxea eta Leire Etxart garaituz. 3. eta 4. mailakoetan, Martin Azkarraga eta Luis Iturria txapeldun eta Joseba Oskaritz eta Dani Saldias azpitxapeldun. 5. eta 6. mailakoetan, Daniel Fernandez eta Txomin Etxandi txapeldun eta Jorge Iturria eta Borja Jaimerena azpitxapeldun. Guraso eta ikasleen arteko futbito partida zaharren alde gan zen, 9 eta 6. Bazkal ondoko mus txapelketan, Emma Ayuso eta Angel Bertiz suertatu ziren txapeldun, Jose Luis Ruiz eta Agustin Larretxeari irabaziz. Bertzalde, eskolako hamabortz ikasle eta irakasle batek astea pasatu dute Andaluzian, «Eskola bidaiariak» kanpainaren barnean.



TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tiñoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

SARA

Osasuna elkarteak urteko biltzarra egin zuen ekainaren 18an

Sarako Itzulian seirehun ibiltarik aurre egin zioten euria eta lainoari

ANA MARI ETA FRED

Osasuna elkarteak bere urteko biltzar nagusia ekainaren 16an egin zuen. Berritasun gisa, orain Saran karta dutenak Senpererat joan ahalko dira, han ere Sophie Albizuk antolatzen baititu gimnastika klaseak.

Aurtengo sasoina finitua dute eta hurrengo buruilaren 18an hasi beharra da. Lehen kurtsua urririk izanen da, bakoitzak ikus dezan gustoko duen ala ez. Gero hartzen ahalko du karta.

Ideki eta etsi

Herrian ez dugu gehiago esantza erosteko manerarik ukanen, orain dela hiru aste etsi baitzen esantza posta.

Aldiz, jateko toki berri bat ukanen dugu plazan, Mendekostez ireki bait zuten Lastiri osatua Guillaume eta Jean Fagoaga anaiek. Bi den da berri ere baditugu. Bat «Le piment rouge» (Biper Gorria) Nathalie D'Herbey anderearena. Arropa, opariak eta oroi-garriak ditu salgai. Bertzeak, «La Venta de Sare» (Sarako Benta), Mixel Etxebeste du jabea. Euskal Herriko produktuak eskaintzen ditu, jateko bai edateko.



Presoen eskubideen aldeko ekitaldiak egiten ari dira Saran.

Azkenik, Elies eta Nieves Tapia, eta Pierre eta Arantxa Indaburuk Euskal Etxearen museoa ideki beharra dute laister.

Sarako Itzulia

Axuria elkarteak bi urterik gehin antolatzen duen Sarako Itzulia Mendekostez iragan zen. Seihun presuna abiatu ziren Sarako plazatik herriko itzulia egiteko xedearekin. Baina

denbora zinez txarra atxeman zuten, euria eta euria egin bait zuen goiz goizetik. Hori aski ez baldin bazen, mendi kaskoak lainoz estaliak ziren eta oinezko batek baino gehiagok zailtasunak ukan zituen bide xuxena atxemateko. Abiatutako 600etatik 330 ailegatu ziren plazarat. 150 izan ziren parte hartu zuten herri-tarrak, 50 Hegoaldekoak eta Frantziatik Paue,

Bordele eta Tarbesekoak ziren gehienak. Aipatu behar dabelarik bat etorri zela espreski Sarako Itzulia-arentzat. Antolatzaileek mezu bat ere helarazi daukute oinezkoendako presatutako ibilbidean (Axuria mendian) ibili ziren hiru motorradunei: «Bi urtetik behin egiten den ibilaldia errespetatzeko. Badire eta bertze lekuak ibiltzeko! Nola ez, afari batekin amaitu zen eguna, berrehun bat lagun bildu zirelarik plazan egindako otorduan. Antolatzaileek eskertu nahi dituzte laguntzaile guztiak, bai herriko bertze elkarteak, Gurutze Gorria, etab...

Euskal presoen eskubideen aldeko martxa eskualdean

Baigorriin hasi den

presoen aldeko martxa gure eskualdetik iragan da. Joan den astean, Azkainetik etorri, San Inazioko lepoa igan, eta Larrun kaskoraino upatu da, bero gaitza izanikan ere. Segur mendizaleek kaskoko ostatuak sekulan baino gehiago preziatu dituztela! Gai horrekin segitzeko, Sarako plazan presoen alde eginen den ondoko elgarretaratzea ekainaren 30ean eginen da, arratseko 7etan.

Josta Blai lehiaketaren finalerdira

Joan den ekainaren 8an Sarako Gau Eskolako ikasleek Josta Blai irrati jokoaren final erdia jokatu dute Gure Irratian. Eginahal guztiak egin dituzte, baina azkenean, 3 punduz galdu dute Arbona-Basusarriko taldearen kontra. Finala, joan den astean jokatu da eta Donibane Lohizuneko taldeak irabazi du aurtengo edizioa. Zorionak gure lehiakideeri eta lagundu dituzten guzietari eta heldu den urte arte!



SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



SAIOA
ILEAPAINDEGI
MISTOA
IBARDINen

Benta Biok-en,
Benta Mirentxuren
ondoan

© 0034948630424

EZKONTZAK

Roberto Arnaitz Moreno eta **Ana Mari Pizzio Pikabea**, Iruña eta Berakoa, ekainaren 3an.
Eduardo Petrirena Vaquero eta **Amaiagoia Pikabea Arribillaga**, Elizondo eta Berakoa, ekainaren 10ean.
Francisco Javier Razkin Calderón eta **Maria Teresa Puñal Senosiain**, Leizta eta Atarrabiakoa, ekainaren 17an.
Juan Francisco Ortiz Caballero eta **Amaia Ariztimuño Zubillaga**, Leitzakoak, ekainaren 17an.
Pedro Manuel Belauntzaran Barno eta **Ainhoa Astibia Makatzaga**, Leitzakoak, ekainaren 6an.
Jose Manuel Arotzena Larralde eta **Ana Mari Arrosamena Sanzberro**, Lesaka eta Etxalarkoa, ekainaren 17an.
Pedro Maria Maia Martikorena eta **M^a Rosario Saldias Saldias**, Elizondokoak, ekainaren 3an.

JAIOTZAK

Maialen Ruiz Altzuguren, Berakoa, ekainaren 4an.
Saioa Ugalde Eltzaurdia, Berakoa, ekainaren 8an.
Andrea Etxeberria Elizalde, Berakoa, ekainaren 14an.
Jon Telletxea Manterola, Berakoa, ekainaren 14an.
Manex Martikorena Saharrea, Berakoa, ekainaren 16an.
Iñigo Belarra Oteiza, Doneztebekoa, ekainaren 6an.
Maialen Arregi Urtsuegi, Zigakoa, ekainaren 2an.
Ainhoa Goñi Bouzourene, Elizondokoa, ekainaren 7an.
Iratxe Etxenike Sarratea, Zigakoa, ekainaren 15ean.
Asier Arotzena Mariezkurrena, Arantzakoa, maiatzaren 31n.

HERIOTZAK

Gregorio Ibarra Astiz, Lesakakoa, ekainaren 9an, 71 urte.
Micaela Zubitur Sarasua, Leitzakoa, ekainaren 18an, 90 urte.
Miguel Azkarraga Sarratea, Elizondokoa, ekainaren 6an, 89 urte.
Micaela Iltzauspe Sukilbide, Erratzukoa, ekainaren 9an, 77 urte.
Maria Bautista Larraia Etxenike, Oiategikoa, ekainaren 18an, 96 urte.



**Julian
HERNANDEZ BERGARA**

II. urteurrena (98-06-25)

Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko.

OSABA, IZEBEA ETA LEHENGUSUAK
Lesaka, 2000ko ekainaren 25ean



**Jose Mari
ARBURUA TOMASENA**
I. urteurrena (Etxalar, 99-06-27)

Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai
hauts hartatikan uste gabean
noizbait ginaden gu ernai.

ASIER eta AINHOAren lagunak.



**Jose Mari
ARBURUA TOMASENA**
I. urteurrena (Etxalar, 99-06-27)

Ez agurrik, ez adiorik
gu guziona artean
beti iraunen duzu
bizirik.

Etxalarko Altxata Elkarte.



**Jose Mari
ARBURUA TOMASENA**
I. urteurrena (Etxalar, 99-06-27)

Zure lana, borroka eta heriotza
isiltasunean izan dira.
Hala ere, Etxalartarrok,
ez zaitugu, ez, atzenduko.

Etxalarko Ezker Abertzalea.



Eskualde osoko eta adin guzietako pilotariek parte hartu dute Josetxo Ezkurra zenaren omenez Txaruta elkarteak antolatutako hamargarren pilota txapelketan.

Argazkia: Foto Zaldia

Josetxo Ezkurraren omenez jokutzen den pilota txapelketako finalak burutu ziren

- Ekainaren 18an jokatu ziren kategoria guzietako finalak
- Txaruta pilota elkarteak antolatu du hamargarren aldiz

Ekainaren 17an jokatu ziren Txaruta pilota elkarteak, Doneztebeko Udalaren eta Nafarroako Kutxaren laguntzaz hamargarren urtez antolatutako Joxe Ezkurra Memoriala pilota txapelketaren finalak. Goizean ttikiaren txanda izan zen. Benjaminetan, Erratzuko Mairu Garisoain eta Saldiasko Aritz Juanenea, Joseba Iraola almandoztarra eta Antton Jauregi amaiurtarraren kontra aritu ziren. Azken hauek 18 eta 4 irabazi zuten.

Benjaminetako B mailan, Aitor Zubigarai eta Mikel Mindegia arraioztarrek, Josu Agerre almandoztarra eta

Garikoitz Larretxea arraioztarra izan zituzten aitzinean. Partidu erdira arte berdinduak ibili ziren, baina hortik aitzinera bi arraioztarrak gailendu ziren, 18 eta 9 irabazi arte.

Alebinetako A mailan, Erratzuko Xabi eta Manu Irigoienek alde batetik eta Mikel Unanua eta Jon Arretxea gartzaindarrak arras partidu polita eta luzea eskaini zuten. Atzelariak, batez ere, ederki aritu ziren eta jokaldi ederrak ikusi ziren. Gartzaindarrak aitzinetik izan ziren ia partidu osoan, baina hamaseina eta hamazazpina berdindu ondotik, azken tantua erra-

tzuarren alde erori zen.

Infantiletako B mailan Aitor Iantzi eta Iñigo Erkizia beratarrek, Irurritako Martin Gallego eta Gartzaingo Iñigo Otxandorenarekin neurtu zituzten indarrak. Baztandarrek nahiko aisa eraman zuten partidu, baina azkenean lanak izan zituzten partidu 18 eta 14 bereganatzeko.

A mailako infantiletan, Donamariako Ruben Otxandorena eta Igor Arregi gailendu ziren, atzelariaren indarrean oinarrituz. Irurritako Joxe Mari Salaburu eta Patxi Barberena ongi defenditu ziren arren, azkenean 18 eta 11 irabazi zuten Malerreka-koek.

Arratsaldean nagusien txanda izan zen.

B mailako jubenetan, Elizondoko Ander Etxenike eta Mikel Santesteban, Narbarte-ko Asier Arretxea eta Elizondoko Imanol Oscozen kontra aritu ziren. Haseran partidu orekatua izanen zela bazarudien ere, azkenean Etxenike eta Santestebanek 18 eta 7 irabazi zuten.

A mailako jubenetan berriz, Sunbillako Imanol Apeztegia eta Luis Ibarra izan ziren txapeladun, Lesakako Iker Tainta eta Irungo Xabier Lazkanori 18 eta

11 irabazi ondotik. Sunbillakoen atzelariak indar handia erakutsi zuten eta hortan oinarritu zen garaipena.

Kadetetan Elizondoko Unai Arraztoa eta Ezkurrako Javier Etxeberriak 18 eta 14 irabazi zioten Irurritako Kotte Plaza eta Xabi Arraztoari. Hau ere partidu parekatua izan zen, baina azkenean Arraztoaren jokoak erabaki zuten partidu.

Arratsaldeko egitaraua handien pilota partiduak itxi zuten. Aratzako Agesta eta Errandonea, 22 eta 15 irabazi zioten Berako Retegi eta Olazabaleri, partidu luze baten ondotik.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

DONEZTEBE

► Ekainaren 28tik
uztailaren 2ra

ERRATZU

► Ekainaren 28tik
uztailaren 2ra

SENPERE

► Erearoaren 30ean
hasita

LESAKA

► Uztailaren 6tik
10era Egitaraua gehi-
garran.

AZPILKUETA

► Uztailaren 6tik
10era Egitaraua 21.
orrialdean.

UDAKO ZINEA

ELIZONDO

► Uztailaren 4an

'Tarzan'

► Uztailaren 6an

'Angus' (euskaraz)

► Uztailaren 11n

'Deep blue sea'

► Uztailaren 13an

'Toy Story 2'

Elizondoko merkatu
plazan, 22,30etan.

ERAKUSKETAK

BERA

► Uztailaren 9a arte

Gasteizko Itur-Artea ko-
lektiboaren pintura eta
eskultura lanak ikusgai.

ELIZONDO

► Uztailaren 21a
arte

Pello Azketa margola-
riaren lanak ikusgai
Arizkunenea Kultur
Etxean. Orduetgia,
arratsaldeko 7etatik
9etara.

TELEBISTAKO TXOKOA



Uda ailegatu da TTIPI-TTAPA TELEBISTARA

Eguraldi aldaketarekin batera telebistako programazioa ere berotu egingen da TTIPI-TTAPA TELEBISTAN. Laster, udako programa frexkoenak, zure etxe-ko pantailan.

Bestaz-besta:

Sanpedroak eta Sanferminak

Egunero-egunero Donez-
tebeko karrketan bizi den
giroa islatuko du TTIPI-TTA-
PA TELEBISTAK uztailaren 2a
arte. Uztailaren 6tik aitzine-
ra, berriz, San Ferminak hasiko dira Iruñean eta Lesakan. Hiriburuko ospakizunak alde batera utziz, Lesakan izanen den bestarekin bat egingen dugu uztailaren hasieratik.



Ekainaren 28tik aitzinerara Ikas-telebista

Gure herrietako es-
koletan ikasturtea
akautu denez, TTIPI-
TTAPA TELEBISTAN ur-
te osoan lanean ari-
tu diren ikasleak sa-
ritu nahi ditugu.

Horretarako sortu dugu IKAS-TELEBISTA egitasmoa. Ekaina hondarretik aitzinerara egunero-egunero ikusi ahal izanen duzun saio honetan, bertzeak bertze, Bortzirietako ikasle guzietatik antzeztu dituzte antzerki obrak ikusiko ditugu. Horretaz gain, ikasleek beurek egin eta aurkeztuko dituzten saioak emitituko dira ilunabarretan. Hori bai, guk ez dugu inor gainditu edo suspendituko, hori ikusle eta ikasleen esku geldituko da hala nahi izanez gero.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.500 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 208 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 115 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra540
1.koa510
2.koa480
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra560
1.koa540
2.koa520
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 30.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 28.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Haizkora zuhaitzaren
erroari kheinatzean»

PATXI SALABERRI
PAMIELA

'Axularren gogoetak eta erranak', hori da liburu honen azpititulua, eta liburu honen gai nagusia. Pedro Agerre Azpilkueta, "Axular" Urdazubin jaio zen XVI. mendearen bigarren erdialdean. 1596an sartu zen apaiz, handik lau urtera Sarako elizako erretore izateko. Predikari gisa aski ezaguna zen Lapurdi osoan, baina liburu batek eman zion gaurko egunerarte iraun duen ospea: Gero.

Hainbat lapurditar bezala Patxi Salaberri aramaioarra ere Axularren hitz jarioaren miresle dugu. Orain arte argitaratu dituen lau liburuak idazle honen inguruko bildumak dira. Euskal idazle klasikoetan emankorrenetako baten gogoetak biltzen dira, beraz, liburu honetan. Lehen begiratuan itxura erlijioso-zeruzalea darie testuei, baina errez antzeman daiteke duten planteamendu gizatiarra ere.

Zer da sindrome hiperzinetikoa?

Arraroa egiten zaigu hitz hori, ezta? Beharbada ohikoagoa da haur hiperaktiboez solastea, azken finean gauza bera baita.

Haur hiperaktiboez ez dute arreta jartzeko gaitasunik, inpulsibiltate aldaketak dituzte eta sobera mugitzen dira. Honek denak eskolako lanean eragin negatiboa izaten du generalean. Haur hiperaktiboa aisa distraitzen da klasean, lan batetik bertzerara pasatzen da etengabe, akats aunitz egiten ditu, eskolako materiala ahanzi eta galdu egiten du.

Inpulsibiltatea bi modutan agertzen du haur hiperaktiboa: batetik, ez ditu kontuan hartzen bere ekintzen ondorioak (bertze haurrek baino istripu gehiago izaten ditu horregatik) eta, bertetik, arazoei irtenbideak bilatzeko zailtasunak ditu. Beren jarreragatik maiz istiluak izaten dituzte, eta aunitz «helduga-beak», «gaizki-ikasiak» edo «trauskilak» direla pentsatu ohi da. Horrek lagun eta inguruko helduen jarrera bazter-



Haur hiperaktiboez kontzentratzeko arazoak izan ohi dituzte.

tzailea ekartzen du. Honek haserrekor bihurtzen ditu, frustrazioak izaten dituzte eta, maiz, agresibitatea ere agertzen dute. Haurra hiperaktiboa den lehenbailehen jakitea komeni da, beharrezko tratamendua martxan jartzeko.

TRATAMENTUA

Bi modutakoa izaten ahal da: batzutan estimulanteak erabiltzen dira, paradoxikoki inpulsibiltatea eta hiperaktibitatea moteltzen baitute, eta bertzetan jarrera zuzen-

tzea da kontua. Gurasoen lana garrantzitsua da arras. Hartu dituen ohiturak zuzentzen saiatu behar dute, bere suminaldiak moztu behar dituzte... eta beren seme edo alabak eritasuna duela kontziente behar dute izan, ez alfer edo ganberro bat dela.

Erran behar dut, azkenik, gehienetan nerabegarora ailegatzean sintomak desagertzen direla.

RAKEL AMIGO

BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

AGENDA EGUNEZ EGUN

IKASTAROA

ELIZONDO

► Abuztuaren 2tik

30era Baztango paisaiak margo ikastaroa helduendako. Irakasleak: Tomas Sobrino eta Joxe Mari Apeztexea. Matrikula: 7.000 pezeta.

ELIZONDO

► Uztailaren 3tik 14ra

Papera eta tinta (Arte Grafikoarekin jolasean) ikastaroa Arizkunenean. Haurrak: 5 urtetatik 8 urtetara eta gazteak 9 urtetatik 14 urtetara. Orduetgia: Haurrak goizeko 10,30etatik 11,30etara eta gazteak 11,30etatik 1,30etara. Matrikula: 500 pezeta

TXAPELKETAK

DONEZTEBE-LESAKA

► Uztailaren 1 eta

2an Baztan, Malerreka eta Bidasoako trikitilari txapelketaren bigarren eta hirugarren saioak.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfpora. deitu behar da

► Ekainaren 26tik

uztailaren 2ra Bera, Nabarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► Uztailaren 3tik

9ra Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Uztailaren 10etik

16ra Eixalar, Sunbilla, Iurita eta Goizueta.

DISKAK



«Baratze bat»

PIER PAUL BERZAITZ

ELKARLANEAN

Zuberoako Muskildi herrian sortua da Pier Paul Berzaitz. 70. hamarkadan GUK taldearen sortzaileetako bat izan zen, eta kantu saldo bat konposatu zuen eurekin. Bere aldetik, berriz, lau pastoral idatzi ditu berrikiago. Zuberoan barna ibili diren bertze hiru ikuskizun ere antolatu izan ditu Berzaitzek. Bere lehen diskoa, "Han eta hor" 1987an karrikaratu zuen Elkarrekin.

Bertzaitzek tradizio eta kantu zaharretan oinarritzen du bere musika, baina beti ere ikuspegi moderno eta aurrerakoa erakutsiz. Musika moldaketetan Karlos Gimenez beteranoa izan du lagun, eta horrek aparteko balorea ematen dio lan distiratsu honi. Diotenez, Pier Topet Etxahun eta gaurko musikari gazteen arteko zubia da Berzaitz Zuberoan.

MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Giltzak maiatzean emanen dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

16 m²ko terrazarekin. ☎ 948 637 281.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERA. Pisua hartuko nuke errentan. Ingles irakaslea. ☎ 943 641 945 (goizez edo gauzez).

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. 25 m²ko lokala errentan ematen da Agerra auzoan (erakusleho handiarekin). ☎ 654 729 990.

SARA. 800 m²ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m²ak alokatzen ahal dira, 400 pta/16 lib. m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Frantzes edo aleman irakaslea bilatzen dut Beran lokala konpartitzeko. ☎ 943 641 945.

Neska bat behar da Iruñean Pio XII karrikan, unibertstatetik 10 minutura hurrengo ikasturtean lau pertsonako pisua betetzeko. ☎ 656 738 831 (Oihana).

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

ADOS

IRURITA.

- Lur eremu eraikigarria salgai.

☎ 948 451 841
607 978 656

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

ARANTZA ZYRGINDEGIA

José Miguel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

LANA

301 ESKARIAK

Neska batek haurrak zainduko lituzke Beran, uda partean. ☎ 948 630 822.

LANA

302 ESKAINTZAK

Lan egin etxetik. Ordu gutxi lan egin eta ongi irabazi. Nazioarteko enpresa. ☎ 943 635 173 edo 629 373 364 (Mikel).

☎ 948 13 11 36

LODITASUNA

96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogatzeko. Belarren bidez egingen da.

Oiartzungo Pagoa garagar-dotegi-jatetxean **zerbitzariak** behar dira asteburuetarako. Euskaraz jakitea beharrezkoa, eta ahal bada esperientzia izatea. ☎ 619 421 153 (Joxe Angel).

Abeslaria behar da Iruñeko talde batentzat. ☎ 948 142 954.

Berako ostatu batean barran eta sukaldean aritzeko **bi lagun** behar ditugu. ☎ 666 079 141.

Baztanen **piszina zaintzeko** lagun bat behar da, sorosle titulua baldin badu hobe. ☎ 619 829 289.

Lekarotzen **zerbitzaria** behar da udako, egun sueltoetan. ☎ 619 829 289.

Almandozen astebukaeratarako **zerbitzaria** behar da. ☎ 619 829 289.

Donamarian astebukaeratarako **zerbitzaria** behar da. ☎ 619 829 289.

Larunen **zerbitzaria** behar da uztaitetik irailerarte astean 6 egun lan egiteko. ☎ 619 829 289.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

R-19 Chamade TD salgai. 150.000 km. NA-AF. ☎ 639 723 673.

Lada Niva salgai. SS-AP. Egoera onean, prezio interesgarria. ☎ 948 393 075.

Ford Fiesta RS 1.6 autoa salgai, SS-Af matrikuladuna. Radiokaseta eta extrakin. Egoera onean. 200.000 pezeta. ☎ 948 450 936.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Astra Caravan TD eta GSI,
Vitarra D, 205 GT eta D, Corsa D,
Kadett GSI

SUZUKIAK ETA VITARRAK AUKERAN

GANIX Tailerrak

Iturialdeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

601 OPARITZEKO

Zakurkume emea oparitzen dut. Mastin eta artzainzakur nahasketa. ☎ 948 580 072 (eguerdian).



•• Garraiolari Profesionala.

•• Merkantzia arriskutsuen ikastaroak hilabetero (ADR).

•• Trailer gidarientzat formakuntza profesionala enpresetan praktikak eginez.

•• Enpresetan gidari lanpostuak.

•• Errepideko garraiolari profesional gisa aritzeko kamioia errentan hartzeko aukera.



Gidatzeko baimenak

A-1	Motoa (125 cc arte)	(16 urte)
A	Motoa	(18 urte)
B	Autoa	(18 urte)
C-1	Kamioia (7.500 tara arte)	(18 urte)
C	Kamioia	(21 urte)
E	Trailer eta erremolkea	

Kamioiekin praktikak egiteko toki berezia





URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeako, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilo igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira TTPI-TTAPA TELEBISTAN eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobra bat eta helbidea ere bidali.



Julen Telletxea Perugorria etxalartarrak ekainaren 16an 2 urte bete ditu. Zorionak ataxi, osaba eta izebaren partetik.



Amaia eta Unai beratarrek 26 eta 2 urte bete dituzte ekainaren 19 eta 20an. Zorionak familiaren partetik eta ongi pasa eguna.




Jorge Etxarte Agerrek 8 urte beteko ditu ekainaren 29an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.




Asier Arrieta elgorriagarrak ekainaren 13an bete ditu 2 urte. Zorionak eta musu handi bat aita, ama, Maialen eta familiaren partetik.



Naiara Apeztegia doneztebarrak 9 urte beteko ditu ekainaren 25ean. Zorionak! Javier, aita, ama, ama-txi, Begoña, Pakita eta M^a Nieves.



Eugenia Lasaga Zaldiaena igantziarrak ekainaren 18an 88 urte bete ditu. Zorionak Fermin eta Ainararen partetik.



Endika Larraalde Olazar elgorriagarrak 4 urte bete ditu ekainaren 19an. Aunitz urtez guraso, Oihana eta familiaren partetik.



Xabier Madariaga Iribarren urrozarrak ekainaren 14an 10 urte bete ditu. Zorionak Xabier, Unai eta gurasoen partetik.



Aritz Madariaga Iribarren urrozarrak uztailaren 2an beteko ditu 12 urte. Zorionak Xabier, Unai eta gurasoen partetik.



Beñat Remesar arantzarrak urtea beteko du uztailaren 6an. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta anaiaren partetik.



Naroa Gago Lukanbio sunbildarrak eta **Alvaro Arratibel** arantzarrak uztailaren 24 eta 1ean 2 eta 3 urte beteko dituzte. Zorionak eta bost muxu handi arantzako familiaren partetik.



Nagore Eskudero Baleztena eratsundarrak 17 urte beteko ditu uztailaren 3an. Zorionak bere guraso eta ahizpa Yesikaren partetik.



Nagore Eskudero Baleztena 17 urte beteko ditu uztailaren 3an. Zorionak Aurizko familiaren partetik. Ea pastelaz oroitzen zaren.



Jose Manuel Goñi oiztarrak 26 urte beteko ditu ekainaren 26an. Zorionak, bereziki Imanolen partetik. Gonbidapenaren esperoan gaude.



Kemen Mauleon Salazar irundarrak uztailaren 10ean 20 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Oier eta Olaia Iantzi Ordoki urteak bete dituzte 19 eta 30ean. Besarkada handi bat aita eta amaren partetik.



Nagore Madariaga Iriarte sunbildarrak 5 urte beteko ditu ekainaren 20an. Aunitz urtez Arantzako familiaren partetik.



Urko eta Ane Sainz Matxikote igantziarrak 18 eta 10 urte bete dituzte ekainaren 17 eta 18an. Aunitz urtez familiaren partetik.



Idoia Iratzoki Bengoetxeak 3 urte beteko ditu uztailaren 5ean. Zorionak eta musu bat aita, ama eta Aitziberen partetik.



Aitziber Iratzoki Bengoetxeak urtea beteko du ekainaren 30ean. Zorionak eta musu bat aita, ama eta Idoiaen partetik.



Iratxe Mike-larena Bengoetxeak beratarrek 2 urte beteko ditu uztailaren 6an. Zorionak Maialen, aita eta amaren partetik.



Xabat Zapiain Lasa beratarrek 6 urte beteko ditu uztailaren 12an. Zorionak etxekoan partetik. Aupa gure mutiko!



Beñat Garaiar Ara beratarrek 6 urte beteko ditu. Zorionak atta, ama eta Iratiren partetik.



Mitchell Owsley Igoak bi urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.

Norbait zoriondu nahi baduzu bidali bere argazkia, testua eta 35 pezeta ko 15 seilo TTPI-TTAPako helbidera.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

5 esne behi salgai. ☎ 948 610 654.

Fox-terrier eta Cocker ingeles **zakurkumeak** salgai, pedigriarekin. ☎ 948 637 432 edo 677 594 892.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Bigarren eskuko **akordeoia** salgai. Botoiekin. Egoera onean. ☎ 948 631 251.

Tifell **gasoilezko galdara** salgai. Kalefakzioa eta ura berotzeko. ☎ 948 630 362.

Haritzezko logela osoa sal-

gai. 2 ohatze, mesanotxea eta armairua. ☎ 948 580 687.

Sukalde ekonomikoa salgai, De Dietrich markakoa. 80x60. Hagitz egoera onean. ☎ 636 442 303 (Maite). **Egongelako armairua** eta **mahaia** salgai. ☎ 948 631 182.

Belar igogailu elektrikoa eta **belarra higitzeko makina** salgai. Prezio onean. ☎ 948 580 747.

DENETARIK

703 GALDU-AURKITUAK

Lesakan, Itoitzeko kontzertuan Seat autoaren **giltza**, eta bertze bi tiki galdu ge-

nituen. ☎ 948 631 188.

Volkswagen autoaren **giltza** galdu dugu Beran, Agarako giltzariarekin. ☎ 948 637 422.

Auto baten **giltza** aurkitu dugu Berako kanposantu ondoan. ☎ 948 631 188.

Banco Central Hispanoko **giltzaria** harrapatu dugu Beran. ☎ 948 631 188.

DENETARIK

703 GALDU-AURKITUAK

Batzango Kixu, Zarra, Pel-tza eta **Hippy**: gu baino erogoak zarete guri jarraitze-agatik. Mozkortzekotan, xuritu gabe! Poco, Topo, Inaxio eta Fumantxu.



BERAko UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

BERAKO HERRI BIDEAK MOLDATU ETA ZULOAK BETETZEKO OBRAK


- **Kontratuaren Xedea:** Berako herri bideak moldatu eta zuloak betetzeko obrak.
- **Esleipen modua:** Prentsan iragarritako prozedura negoziatua.
- **Kontrata aurrekontua:** 7.061.000 pta / 42.437,46 euro (BEZ barne).
- **Behin behineko fidantza:** Kontrata aurrekontuaren %2a (141.220 pezeta / 848,62 euro).
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarki hau prentsan argitara eman eta ondoko 15. eguna arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, asteleheneraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. Lanegunean, 14:30etan. Egun hau larunbata suertatzen bada, asteleheneraino luzatuko da.
- **Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratibo ple-gua** eta gainerako baldintzak interesatuen eskura udal bu-legeotan izanen dira.

Bera, 2000.06.21
ALKATEA, J. Goia Etxeberria

Besta zoriontsuak denei



Beti zuekin

NAFARROAKO  KUTXA

Zuen kutsca



Sanferminak 2000



*Lesakako Udalak
besta zoriontsuak opa dizkizue
lesakar eta bisitari guzieri*

ttipi-ttapa

281. zenbakiarekin banatua

Herriz herri, bestaz besta

**2000ko uztailaren
6tik 10era**

**Sanferminak
Lesakan**

EGITARAUA

Larunbata 1

6,30etan Udal pilotalekuan, Emakumezko palaleta goma txapelketaren eta gizonezko palaleta txapelketaren finalak. Arkupe elkarteak antolatua.

Igandea 2

10etan Udal pilotalekuan, mahai-tenisa, Beti Gaztek antolatua. **6,30etan** Plaza Zaharrean Herri Kirolak, Beti Gaztek antolatua. **8etan** Plaza Zaharrean, Baztan-Malerrera-Bidasoa aldeko gazteen III. Trikitixa txapelketaren finala.



1960. URTEKO SANFERMINETAN CARLOS SANJURJO BETIZUAREN AITZINEAN. ONDOKO ORRIALDEAN, LESAKAKO GAZTEAK SAN JUAN XARREN, 1956. URTEAN: GERMAN GOIENETXE, JOSE JAVIER CARRION, VICENTE GARRO, IGNACIO LEIZA, JAVIER BERAU, JESUS M^a CARRION, FRANCISCO HUARTE, FELICIANO GOIENETXE, CARLOS SANJURJO, GERARDO CARRION. GIBELEAN IKUSTEN DIREN NESKAK, BERRIZ, CHARO PELLEJERO ETA ARANTXA MARTINEZ DIRA.

ARGAZKIAK: CARLOS SANJURJO ETA ALVARO TELLETXEAK UTZIAK

IRAZOKI janaridenda

Besta ederrak pasa itzazue!!

Arretxea, 12 ☎ 948 63 70 85 • LESAKA



SIÑA

Gizon, emakume eta haurren jantxidenda • Bitxiak

Albistur 3, behea • ☎ 948 637951 • LESAKA

MARIXUS

Elektragailuak

ENETERREAGA ANAI-ARREBAK

Zarandia, 3 • ☎ 948 637 070 • 31770 LESAKA

Bertako zerbitzu teknikoa

Elektrizitatea eta antenak (parabolikoak, kolektiboak...)

Iturgintza eta bainuak • Biltegia





Mari Asun

Umeentzako Arropak eta Lentzeria

Arretxea karrika • © 948 637 048 • LESAKA

“ZZ” ZAPATADENDA

Besta onak pasa itzazue

Bittiriako Plaza, 5 • © 948 63 72 23 - LESAKA



IRU BIDE
ERRETEGIA

Ongi pasa
bestetan!!

Tfnoa: 948 637127
LESAKA

★ IZARRA ★

OKINDEGIA

Aupa San Fermin!

Plaza Zaharra, 13
© 948 63 78 55 • LESAKA

TELEBOTE OSTATUA

**BESTA
ONAK
PASA!!**

Arretxea, 10
Tfnoa: 948 63 71 88
LESAKA


Uztailaren 6tik 10era

Asteazkena 5

6etan kadete mailako Marino Lejarreta XIV. Txirrindularitza saria, Beti Gaztek antolatua.

Ortzeguna 6
Bezpera

12etan Herriko Etxetik altxaferua botako da. Berehala, txistulari, soinulari, trikitilari eta haur ttikien danborradak giro-tuko dizkigute herriko karririkak. **6etan** frontoian, Tantirumairu dantza taldearen erakustaldia; **8-etan** Peña guzieren ordezkariak altxaferoa bota ondoren danborrada abiatuko da, Kankailu eta Buruhaundi; danborjole eta soinulari, Lesakako Banda eta guzi, herriari itzulia emanez. **Gauerdiko 12tan** Musika Plaza Zaharrean AKELARRE taldearekin. LOS INCAN-



1960. URTEKO EZPATADANTZARIAK: HIPOLITO APEZTEGIA, MARTIN ALTZUGARAI, ALFONSO IGOA, SANTIAGO IGOA, TXATO ALTZUGARAI, JOSE LUIS ETXEPETELEKU, JUAN LEGASA, JULIO LEIZA, MANOLO IGOA, CARLOS SANJURJO, GERMAN GOIENETXE, VICENTE GARRO, PEPITO ITURRIA «BORDATXO», MARTIN ZOZAIA «ALTONBORDA»ETA IGNACIO LEIZA. ONDOKO ORRIALDEAN, DANTZARIAK PROZESIOA.

LESAKAn gaituzu zure zerbitzura

Plaza Berria, 10 - ☎ 948 637335

Garbi - Leku
t i n d a t e g i a

Arropa, larruak, tapizak, etab... garbitzen ditugu

Iñaki OLAIZOLA

- ELEKTRIZITATEA OROKORREAN
- MUNTAIA ELEKTRIKOAK
- ALARMA ETA PORTERO AUTOMATIKOAK

Bittiria 39, ☎ 948 637405, mug. 670 41 74 99 • LESAKA

Pinturak
eta
barnizak

LESAKA

☎ 686 805435

☎ 948 637556

Manuel Zamorano

LESAKA AUTOESKOLA

LCC bi egunetan azterketarik gabe

Albistur 39 - H ☎ 948 63 78 70

A1 - A - B - BTP - C1 - C eta E
karnetak ateratzen ahal dira

ETXARTE

bitxidenda
erlojudenda
Kirol Trofeoak

Albistur karrika, 1

☎ 948 637205

LESAKA



Labekoak Goxotegia

Ongi pasa Sanferminak!

Arretxea, 24 • LESAKA

Zozaya

ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
GASA

Alkaiaga industrialdea

Elutxa 3.17 - LESAKA

Tel.: 948 631 502 - Faxe: 948 630 863

KOXKILA ostatua



Ongi pasa Sanferminetan!

Zarandia, 4 - LESAKA

Uztailaren 6tik 10era

SABLES txaranga karrikaz karrika ibiliko da.

**Ortzirala 7
San Fermin Eguna**

Goizeko 8,30etan Ezpatadantzarien meza ixila. 9,30etan Goiz argi soinua. 11etan Udalbata bertze agintariekin, ezpatadantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aitzinean dituztela, Herriko Etxetik elizara, Meza Nagusira joan dira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. Meza ondotik, Fermin Zaindariaren irudiarekin herri guzitik prozesioa. Ibilaldia berriro Elizara itzuli ondotik, Udalbata, mezara joan diren moduan jautsiko dira Eskol-Ttikira, Onin errekaaren bi aldeetan egiten den 'Zubigaine-



1960. URTE INGURUKO SAN FERMINETAN EDERKI PASATZEN ARI ZEN GAZTE KOADRILAHAU, HORRETAN EZ DAGO ZALANTZARIK: ALVARO TELLETXEA, JULIO LEIZA, IGNACIO ETXEGARAI, TOMAS REKONDO ETA CARLOS SANJURJO. ESKUINEKO ORRIALDEAN, SANJURJOTARRAK 1946. URTEKO TXAKAIN EGUNEAN: ?, RAFAEL SANJURJO, NELI SANJURJO, RAMON SANJURJO, EUGENIA SANJURJO, CARLOS SANJURJO, TERESITA SANJURJO, MATILDE SANJURJO, MARCELINO SANJURJO, JOSE SANJURJO ETA CARLOS SANJURJO.

PATXI ZAMORANO S.L

- Bernizatze-kabina
- Pintura lanak orokorrean

Leitzako Bidea • © 948 450734 • 689 575401 • DONEZTEBE

Juanjo ERRO

ZURGINDEGI LANAK OROKORREAN
MOBLE ZAHARREN KONPONKETA

Alan-Zahar, © 948 637862 • LESAKA



Plaza Zaharra, 14 • © 948 637 721 • LESAKA

KATTU

ostatu - jatetxea

*Asteburuetan plater konbinatuak eta menuak
Ortziraletan enkarguz*

Sanferminetan ere zure zerbitzura

© 948 627 573 • LESAKA



MIKELAJAUREGI
ARRAINDEGIA

☎ 948 63 70 46,- ALBISTUR, 19 - LESAKA



Mariluz
ILEAPAINDEGIA

Plaza Zaharra, 26 • LESAKA
© 948 637926

ALZURI
ELEKTRAGAILUAK

SUTE ETA EBASKETEN KONTRAKO ALARMAK
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
MOTA GUZIETAKO ANTENAK
C + ZUZENEKO KONTRATUAK
TELEFONO MUGIKORRAK

Bittiria, 41 • © 948 627531; Mug.:608-778894 • LESAKA



OSTATUAK

besta zoriontsuak opa dizkizue

Uztailaren 6tik 10era

koa' dantza, orain 500 urte lesakarren artean lortu zen pakea oroitarazten diguna ikustera. Berehala, Tantirumairu doinuari dagokion ikurrin-agurra zubigainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko Etxera igan aitzinetik. **6etan** Bezperak. Bezperak akitu ondotik, ohitura-ri segituz, Mutil Dantza, San Fermin Dantzaren sarrera, Esku Dantza, Aurreku eta Jotak Plaza Zaharrean. **Gauetz** musika Plaza Zaharrean GAUBELA taldearekin. **Gaueko 11,45etatik goizeko 4,30ak** arte Donostiako Antiguoko Elkarteko danborrada



BERRIZAUN TAILERRAK



LESAKA GASOLINDEGIA

IMANOL TELLETXEA ZOZAIA

Besta ederrak pasa!

Tel. 948 637 460

LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK
PLASTIFIKATZEAK
ENKUADERNATZEAK
INPRENTA LANAK

*Besta onak
pasa!!*

Legarra, 9 • Tfnoa eta Faxe: 948 637 030 • LESAKA

*Aupa San Fermin!!!*

Bittiria, 41 • ☎ 948 63 7518 • LESAKA

IGARZABAL

ILEAPANDEGIA · ESTETIKA

Albistur, 15 behea • LESAKA • Tel.: 948 637 280

Uztailaren 6tik 10era




KASINO ostatu-jatetxea
Plaza Zaharra 14 • © 948 637152
LESAKA

NIN
BENVG FK

L t k
u l z t t
F l l t k
k m s t k
l m r n t k l n k

Em l n n r r k s s

11/17 x 37 7

LNK BK - L S K - N T T

EZ DAGO PEÑEN EGUNEAN ITZALPEAN BAZKALTZEA BEZALAKO-RIK, GALDETU BERTZENAZ BAIKORRAK PEÑAKO KIDEEI.
GOITIAN, 1940. URTE INGURUAN, UDAL TXISTULARI BANDA: JUANITO ALTZUGARAI, RAMON SANJURJO ETA LUIS TABERNA.

ESTHERATEAK

Ate eta zerrailak
saldu eta jartzen ditugu

Gora San Fermin!

Zarandia 9 • © 948 62 75 84 • LESAKA

ODRIOZOLA eta HUIZI

**ZERRAILGINTZA
TAILERRA**

Alkaiaga Industrialdea - Elutsa, Pab 3-18
© 948 631244 • BERA

Uztailaren 6tik 10era

herrian barna, PATXARAN-GA txarangarekin. ZIZ-KUITZ txaranga ibiliko da karrikaz karrika.

Larunbata 8 Peñen Eguna

10etan Peñen danborrada. Beti Gazteren egoitzan xake txapelketa. **12etan** Betizuak Plaza Zaharrean. **3etan** Saski-baloi txapelketa, 3x3, Irain eskolako instalazioetan, Beti Gaztek antolatua. **6etan** Peñen kontzentrazioa txarangarekin, peñen jautsierarako. **Arratsaldez eta gauz** musika Plaza Zaharrean JATOR taldearekin. Ohi den bezala ZIZ-KUITZ txaranga arituko da.

Igandea 9 Haurren Eguna

10etan Haur koskorren danborrada, Lesakako Kordiolari taldearekin. **12etan** Betizuak Plaza Zaharrean.



GARRAIO AGENTZIA

ESTATU BARNEKO eta ESTATU ARTEKO GARRAIOAK

- Antoiu 23 • Behea
- 31770 LESAKA
- Tfnoa: 948 627644
- Faxe: 948 627656

Uztailaren 6tik 10era





ZER IZANEN LIRATEKE BESTAK BETIZURIK GABE. ESKAPADA BAT EDO BERTZE IKUSTEKO XARMAK JENDE AUNITZ ERAKARTZEN DU PLAZARA.

Arratsalde Plaza Zaharreen 'Navar Produccionnes' Haurren ikuskizunak (Karts, Puzgarriak, Ludoteka, Aparra). **6etan** Plaza Zaharreen, herriko gazteen Jazz erakustaldia. **6etan** Frontoian, eskuzko pilota partiduak profesionalen artean, Arkupe Elkarteak antolatuta. **9etan** Plaza Zaharreen bertso jaialdia Arrano elkarteak antolatua: Sebastian LIZASO, Amets ARZALLUS, Andoni EGAÑA, Xabier SILVEIRA, Maddalen LUJANBIO, Iñigo OLAE-TXEA. Gai-jartzailea: Estitxu AROZENA. **Arratsalde eta gau** **ez** Musika Plaza Zaharreen, GAU BELA taldearekin. **Gauerditik goizaldeko ordu** **batak arte** Plaza Zaharreen Dantzaka taldea, Areto dantza taldearen erakustaldia **Beti**

FAGOAGA HARATEGIA

Albistur, 19 • Tfnoa: 948 63 78 69 • LESAKA



-  **Frutategia**
 -  **Harategia**
 -  **Urdaitegia**
 -  **Arraindegia**
- Charter-en prezio baxuak aurkituko dituzu urte osoan*

© 948 63 72 64 • Bittiria, 67 • LESAKA

Uztailaren 6tik 10era

Gaztek antolatua. ZIZ-KUITZ txaranga karriketan barna.

Astelehena I O Ezkonduen Eguna

12etan Betizuak Plaza Zaharrean. **Arratsaldeko 3,30etan** "54. Txakain Txirrindulari Saria", 23 urtez behitiko eta elite mailako afizionatuen Euskaldun Lehiaketarako puntuagarria den karrera, Basurde elkarteak antolatua eta Lesakako Udalaren babespean. 116Km. inguru. **Ibilbidea:** Lesaka, Bera, Zalain, saihebidia, Lesaka, Igantzi, Be-

rrizaun, Sunbilla (errepide zaharra), saihebidia, Berrizaun, Bera, Zalain, saihebidia, Lesaka, Igantzi, Berrizaun, Sunbilla (errepide zaharra), saihebidia, Berrizaun, Bera, Zalain, saihebidia, Lesaka, Igantzi, Berrizaun, Lesaka (helmuga). **5etan** Plaza Zaharrean VII. Jota Dantza Lehiaketa, San Fermin Jubilatua eta pentsionisten elkarteak antolatua. **6etan** garai batean egiten zena gogoratuz, Musika Bandarekin Eskoltzikit Txakainera joanen da kalejiran, han merendatzera. Gero, **ilunabarreko 9etan** Txakaindik jau-




ARRANO OSTATYA

Ongi pasa Sanferminak falta direnak ahantzi gabe

Albistur I I • LESAKA • © 948 627 597



Sanferminak ttipi-ttapa telebistan Ikusi eta gozatu!

FRONTOIKO OSTATUA
Lesakarren zerbitzura urte guzian

TfNOA: 948 62 75 18 • LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA

Ongi pasa San Ferminetan!

© 948 63 70 27
LESAKA



DEKORAZIO ERROZAI

Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 948 63 78 26 • LESAKA

KAXULA

- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA
© 948 63 75 58

Uztailaren 6tik 10era



tsiera, ZORTZIKO doinuarekin. **6,30etan** frontoian, pilota partiduak afizionatuen artean, Arkupe elkarteak antolatua. **Arratsaldez eta gauetz** musika Plaza Zaharrean EGAN taldearekin. Bukaeran «Pobre de mi» edo Jai-hilak.

MUSIKA BANDA ETA EZPATA-DANTZARI TALDEA, BIKOTE BANA EZINA SAN FERMIN EGUNEAN

Informatika denda

Biur

Kanttonberri 4 • BERA
Tel: 948 631083
Fax: 948 630673
e-mail: biur@jet.es

BITTIRIA

ardotegia

Ongi pasa Sanferminak!

Errioxako ardoak, urdalazpiko eta hertzebetak

Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA

- Eguzkitik babesteko toldoak
- Manualak, elektrikoak, urrunetik irekitzekoak
- Kamioiendako gisa guzietako toldoak (irristatzaileak ere)
- Errotulazioa



Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Sarrera Berako Zalain auzotik)

Tel.948 63 10 03
Mug.: 629 015923

ZURGINDEGIA



matias uranga telletxea

Bestak ongi pasa!

Beko Errota baserria • Tfnoa: 948 637 715 • 31770 LESAKA

MEKANIKA



BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

*Saski Zar
Ostatua*

San Ferminak umorean pasatu!



ELKAR, S.A.
Tailerrak

Zalaingo Industrialdea • BERA
Tfnoa: 948 631013
Faxa: 948 630 929

- Piezen moldaketa
- Harrobi-makinen fabrikazioa
- Nabeen proiektu eta eraikuntzak
- Makinaria moldaketa
- Estrukturak altxatzea
- Galdaragintza



SEMPER
AUTOESKOLA

**Goizeko 9etatik 1etara eta
arratsaldeko 4,30etatik 9etara
Zure ordutegura moldatzen gara**

Eztegara Pasealekua, 22 • BERA
☎ 948 630298 eta 948 637206



✓ Lur mugimendua
 ✓ Saneamendua
 ✓ Urbanizazioak
 ✓ Nabe industrialak
 ✓ Ormigoak eta etxebizitzak
 ✓ Teilatuak Fatxadak eta pinturak

ETXARTE

eraikuntza enpresa

Etxartenea, Biurrana Auzoa • ☎ 948 637970 - 608. 770850 • **LESAKA**

ALMACENES ETXANIZ SA



Lesakako Iturria anaiak

- Bainuak
- Sukaldeak
- Iturgintza
- Kalefakzioak
- Gasa-gasoila
- Grifieriak
- Mobleak
- Manparak
- Hidromasajea
- Osagarriak



ERAKUSKETA
Juan Arana, 1

Tfnoa: 943 61 17 67
Fax: 943 61 44 64

IRUN

BILTEGIAK
Juan Arana, 3

n zt
Ez urr rrr t
r n Iru n



I n
rr ts t n r
r k

EZKURRA

zk rr ,z/ •UH TE-I U E •T.I. 33 2 2

Eusk IJ rrr frnt r n n n rk tz k r l m rk z

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mogleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia



anpara eta koltxetan eskaintzak modelo aldaketengatik

ERAKUSKETA Bittiria 30 eta Plaza
Zaharra 26
SALTOKIA Plaza Zaharra 27 •
Tfnoa: 948 637 780
LESAKA

